Osakidetza



KIRURGIA OROKORREKO ETA DIGESTIO-APARATUKO FAKULTATIBO ESPEZIALISTA MEDIKOA

GALDERAK

1.- Neoplasia tiroideoak eragindako linfadenektomia laterozerbikalean muskulu digastrikoaren atzeko sabela identifikatzea zer nerbioren lesioa prebenitzeko da baliagarria?

a) Goiko laringeoarena.
b) Bizkarrezurrekoarena.
c) Beheko laringeoarena.
d) Diafragma-nerbioarena.

2.- Hernioplastia hauetako zeinek erabiltzen du peritoneo aurreko bidea?

a) Lichtenstein-en hernioplastiak.
b) Gilbert-en hernioplastiak.
c) Rutkow-robbins-en hernioplastiak.
d) Nyhus-en hernioplastiak.

3.- Hernia obturatzaileari dagokionez, zer EZ da egia?

a) Zaila da diagnostikatzea.
b) Eskuinaldean gehiagotan agertzen da.
c) Ohikoagoa da gizonetan.
d) Helduaroan agertzen da.

4.- Zein tumore tiroideo EZIN da diagnostikatu PAAF bidez?

a) Kartzinoma papilarra.
b) Kartzinoma medularra.
c) Kartzinoma folikularra.
d) Kartzinoma anaplasikoa.

5.- Zein baieztapen EZ da zuzena, iztaiko eta izterreko herniaren ebakuntzaondoko min kronikoari dagokionez?

a) Mina handiagoa da paziente gazteengan.
b) Handiagoa da hernia errezidibaren ebakuntzaren ondoren.
c) Ohikoagoa da gizonezkoetan.
d) Intzidentzia % 10 dela kalkulatzen da.

6.- Zer EZ da egia erretroperitoneoko tumoreei buruz?

a) Enukleazioa tratamendu nahikoa da.
b) Kolona prestatzea gomendatzen da.
c) Gomendagarria da profilaxi antibiotikoa egitea tumore handietan.
d) Errezidibagatik berriz ebakuntza egiteko indizea handia da.

7.- Zein da iskemia mesenteriko akutuaren sintomarik ohikoena?

a) Hematokezia.
b) Goragaleak eta gorakoak.
c) Beherakoa.
d) Abdomeneko mina.

8.- Arma zuriz egindako traumatismo toraziko batean, zein mailatatik aurrera eduki behar dugu abdomeneko lesio konkomitantearen susmoa?

a) Saihets arteko 2. espaziotik aurrera.
b) Diafragmaren azpikoa denean.
c) Saihets arteko 5. espaziotik aurrera.
d) Guztietan.

9.- Zein da peritoneoko garbiketa-ziztadaren kontraindikazio absolutu BAKARRA abdomeneko trauman?

a) Aurretiko abdomeneko kirurgia.
b) Koagulazio-nahasmenduak.
c) Obesitatea.
d) Premiazko laparotomia agintzea.

10.- Hautako zein EZ da 2B MENaren parte?

a) Tiroideko muineko kartzioma.
b) Feokromozitoma.
c) Hiperparatiroidismoa.
d) Poliganglioneuroma.

11.- Baieztapen hauetako zein da EGIA, giltzurrun gaineko feokromozitomaren tratamenduari dagokionez?

a) Garrantzitsua da arteria-lotura ahalik eta lasterren egitea.
b) 2 MENean, erasandako guruinaren suprarrenalektomia egingo da, EMN/OTA eta metaiodobentzilguanidina (MIBG) duen gammagrafia.
c) Laparoskopia EZ da teknika lehenetsia.
d) Ondoko egituretan infiltrazioak dituen feokromozitoma gaiztoa bada, kirurgia kontraindikatuta dago.



12.- Meleney-ren gangrena sinergikoan zer EZ da egia?

a) Zelulitis nekrosatzaile akutua da.
b) Beharrezkoa da halo morexka periferikoa erauztea, nekrosi zentralaz gain.
c) Normalean, estreptokoko ez-hemolitiko mikroaerofiloen eta S. Aureus edo bazilo gramnegatiboen elkartze sinergiko batetik sortzen da.
d) Ebakuntza-zaurietan, kolostomietan edo presioagatiko ultzeretan finkatzen da maiz.

13.- Zein da melanomaren aurkezpen kliniko OHIKOENA?

a) Melanoma nodularra (MN).
b) Lentigo gaiztoaren melanoma (LGM).
c) Gainazaleko hedadura-melanoma (GHM).
d) Melanoma lentiginoso akrala (MLA).

14.- Aipatzen diren gongoil-talde hauetako zeinek EZ du barne hartzen gastrostomia distala edo subtotala D2 linfadenektomiarekin?

a) 3.
b) 2.
c) 4.
d) 6.

15.- Kasu hauetan, kirurgia gomendatzen da hernioplastiaren ondorengo min kronikoa tratatzeko, BATEAN IZAN EZIK. Zeinetan?

a) Ebakuntza egin zenetik gutxienez 6 hilabete igaro badira.
b) Tratamendu medikoak porrot egin badu.
c) Min neuropatikoa badago.
d) Irudi-probetan sare biribilkatua ikusten bada.

16.- Zein da pankreako eta duodenoko lesio LARRIENA abdomeneko trauma larriaren ondoren?

a) Pankreako fistula.
b) Behazun-fistula.
c) Ohartu gabeko lesioa.
d) Pankreatitisa.

17.- Tratamenduaren zein iraupen gomendatzen zaio sakoneko zainetako tronbosi errepikaria, idiopatikoa edo tronbofiliarekin lotutako tronbosia duen pazienteari?

a) Sei astetik hiru hilabetera bitartekoa.
b) Hiru eta sei hilabete artekoa.
c) 6 hilabete.
d) 12 hilabete baino gehiago.

18.- Zer baieztapen da EGIA ileoko Crohn-en gaixotasunean?

a) Erauzketa-ertzek zabalak, gutxienez 4 cm-koak, eta ehun osasungarrikoak izan beh
b) Oinarriaren ileoko eta apendizeko erasana duen Crohn-en gaixotasun batean, hobe
c) Ebakirik onena eskuineko hobi iliakoan (EHI) egiten da.
d) Gomendagarria da bypassa saihestea.

19.- Hau guztia egia da gizonezkoen bularreko kartzinomari dagokionez, SALBU ETA:

a) Ia % 100ean, kartzinoma duktalak dira.
b) BRACA/2rekin lotzen da.
c) BRACA/1ekin lotzen da.
d) Estrogenoen bidezko terapia arrisku-faktoretzat hartzen da.

20.- Egoera hauetako zein gertatzen da shock septikoan, hasierako fasean?

a) Hipogluzemia.
b) Bihotz-gastua handitzea.
c) Plaketak areagotzea.
d) Alkalosi metabolikoa.

21.- Zer egoera analitiko zaindu behar da heste meharraren transplantean, tacrolimusaren toxikotasuna saihesteko?

a) Hipokaltzemia.
b) Hipomagnesemia.
c) Hiponatremia.
d) Azidosi metabolikoa.

22.- Zein da kolitis ultzeradunaren kirurgia programatuko teknika lehenetsia?

a) Protokolektomia osoa eta anastomosi ileoanala.
b) Protokolektomia konpontzailea (gordailu ileoanala).
c) Kolektomia eta ileoko zein ondesteko anastomosia.
d) Protokolektomia osoa eta ileostomia Koch-en gordailuarekin.

23.- Zein da faktore independente GARRANTZITSUENA hiperparatiroidismo primario iraunkorra saihesteko?

a) Teknezio sestamibi (Tc-MIBI).
b) Ekografia.
c) Teknezioa (Tc).
d) Kirurgialari aditua.



24.- Ebakuntza aurreko larruazalaren antisepsiari dagokionez, infekzio kirurgikoa murrizte aldera, hautatu ZUZENA:

a) Klorhexidina urtsua erabiltzea gomendatzen da ukitu gabeko larruazalean.
b) Soluzio alkoholdunak aho batez gomendatzen dira.
c) Mukosetan eta zauri irekietan klorhexidinaren soluzio alkoholikokoak erabiltzea gomendatzen da.
d) Soluzio horien eragin-denbora 50 segundo izatea gomendatzen da.

25.- 20 urteko paziente batek abdomen barneko infekzioa du, jatorri komunitariokoa. Ez du komorbilitaterik eta azkenaldian ez dute ospitaleratu. Zer bakteria EZ da derrigorrezkoa estaltzea antibioterapia enpirikoaren estaldura hautatzean?

a) E. colia.
b) Bacillus cereusa.
c) Bacteroides fragilisa.
d) Streptococcus sppa.

26.- Larrialdietara joan den paziente batek abdomen barneko infekzioa izan dezakeen susmoa dago, eta SIRS eskala erabiltzea erabaki da, haren larritasuna ebaluatzeko. Irizpide hauetako zein EZ da sartzen eskala horretan?

a) Tentsio arterial sistolikoa ≤100 mmHg.
b) Leukozitosia >12.000 cels/mm3 edo leukopenia < 4000 cels/mm3.
c) Takikardia >90 t/m.
d) Arnasketa-maiztasuna ≥ 20 arnas/min.

27.- Paziente batek jatorri komunitarioko abdomen barneko infekzio moderatua du, arrisku-faktorerik gabe. Amoxizilina-klabulanikoa (1g c/8h) pautatu zaio fokua behar bezala kontrolatu ondoren. Zenbat denboran mantendu behar da tratamendu antibiotikoa?

a) 24 orduz.
b) 3 egunez.
c) 7 egunez.
d) Ez da beharrezkoa antibioterapiarekin jarraitzea.

28.- Zer ez da bularreko minbizia izateko arrisku-faktore bat gizonezkoetan?

a) Historia familiarra.
b) Obesitatea.
c) William-en sindromea.
d) Erradiazioaren aurreko esposizioa.

29.- Zergatik gertatzen da errefusa akutua?

a) Aurretik formatutako antigorputzek eragina dutelako hartzailearengan.
b) Aloinjertoaren arteriosklerosiagatik; izan ere, hodietako argia estutzearen bidez hodietako hormetako zelula muskular leunak hazi egiten dira.
c) Linfozitoen eta makrofagoen infiltrazio inflamatorio zelular mistoaren bidez.
d) Organoko iskemia eragiten duen mentuaren hodien mikrotrombosiagatik.

30.- Zer da iskemia hotzaren denbora?

a) Kontserbazio-aldia, mentua atera ondoren hozten denetik berriro odola jaso arte, behin transplantea egin ondoren.
b) Organoak odola jasotzeari uzten dionetik (aortako kanplajea edo bihotz-gelditzea) hotzean kontserbatzen hasi arteko denbora.
c) Organoak garraiorako hozkailuan eramaten duen denbora.
d) Organoa ezartzeko beharrezkoak diren berreraikuntza baskular guztiak bankuan egiten diren denbora.

31.- Nola deitzen zaio winslow-en hiatotik sartu eta epiploi txikia irekiz, gibeleko hilioa erabat inguratzen duen maniobra kirurgikoari?

a) Pringle-n maniobra.
b) Kocher-en maniobra.
c) Launois-en maniobra.
d) Shaker-en maniobra.

32.- Brisbane-ren terminologiaren arabera, nola deitzen zaio gibeleko 5, 6, 7 eta 8 segmentuak erauzteari?

a) Eskuineko aurreko sekzionektomia.
b) Eskuineko hepatektomia.
c) Ezkerreko hepatektomia.
d) Atzeko eskuineko sekzionektomia.

33.- Kirurgia abdominal handi ez-kardiakoan, zein da praktika klinikoko gidaren gomendioa, SEDARek sustatua, fluidoak hautatzeko, errestaurazio bolemiko perioperatorioan?

a) Koloide naturalak (albumina) sistematikoki erabiltzea iradokitzen da, kostu erlatibo txikia dutelako.
b) Kristaloideen eta koloideen arteko fluidoterapiaren erabilera iradokitzen da, ez dutelako alderik lotura kritikoetan (heriotza-tasa edo giltzurrun-kaltea), eta koloideek kostu handiagoa dutelako.
c) Debekatuta dago kristaloide kulunkatuak erabiltzea, eta ebakuntza barruko serum glukosatua bakarrik eman behar da.
d) Kritikoki gaixo dauden pertsona guztiek lehen belaunaldiko hidroxietilalmidoiak erabiltzea gomendatzen da.

34.- Hestegorriko minbizia duten paziente hauetako zein hartuko zenuke lehen aukeratzat kimioa eta erradioterapia erradikala duen tratamendurako?

a) 45 urteko emakumea, adenokartzinoma duena heren distalean.
b) 55 urteko gizonezkoa, zerbikaletako kartzinoma ezkatatsua duena.
c) 60 urteko gizonezkoa, zerbikaletako kartzinoma ezkatatsua duena heren distalean.
d) 55 urteko emakumea, adenokartzinoma duena heren distalean.

35.- Zer maniobra gehitu behar zaio Zenker-en dibertikuluaren tratamenduari?

a) Trakeostomia dibertikulua oso handia bada.
b) Lotura esofagogastrikoaren aurreko funduplikatura.
c) Muskulu krikofaringeoaren miotomia.
d) Beheko esfinter esofagikoaren miotomia.

36.- Paziente hauetako zeinek EZ du errefluxuaren aurkako kirurgia-indikaziorik?

a) 33 urteko gizonezkoak, A mailako esofagitisa duena gastroskopian, 5eko DeMeester-en pHmetriarekin eta hiato-etniarik gabe.
b) 55 urteko emakumeak, 3 motako hiato-hernia duenak. PHmetriaren azidoarekiko esposizio-denbora % 11koa da eta A mailako esofagitisa du.
c) 44 urteko gizonezkoak, errefluxu gastroesofagikoko gaixotasunaren (EGEG) diagnostikoa duenak, Lyon-en irizpideen arabera. Hipomagnesemia larria ere badu, beste arrazoi batengatik.
d) 52 urteko emakumeak, Barrett-en hestegorria eta EGEGen sintoma tipikoak dituenak.

37.- Hautatu zein den sekuentzia ZUZENA Barret-en hestegorrian:

a) Metaplasia – adenokartzinoma – displasia – esofagitisa.
b) Esofagitisa – displasia – metaplasia – adenokartzinoma.
c) Displasia – metaplasia – esofagitisa - adenokartzinoma.
d) Esofagitisa – metaplasia– displasia– adenokartzinoma.

38.- Honako hauetako zein EZ da berariaz funduplikatura-indikazioa?

a) IV. motako hiato-hernia.
b) A mailako esofagitisa, horri lotutako beste patologiarik gabe.
c) III. motako hiato-hernia, barruan Cameron-en ultzerak dituena.
d) Errefluxu gastroesofagikoaren gaixotasuna duen pazientea, zeinak ez dituen hartu nahi protoi-bonbaren inhibitzaileak modu kronikoan edo hura kronikoki hartzeko kontraindikazioa duen.

39.- Boerhaave-ren hestegorriko zulaketa, non gertatzen da lehentasunez?

a) Zerbikaletako hestegorrian.
b) Toraxeko hestegorriaren heren proximalean.
c) Toraxeko hestegorriaren heren proximalaren ezkerraldean.
d) Hestegorri distalean, normalean ezkerraldean.

40.- Histologia hauen artetik, zeinek du gastrektomia distal batean aurkitzeko probabilitate TXIKIENA?

a) Adenokartzinomak.
b) Urdail-hesteetako estroma-tumoreak.
c) Kartzinoma ezkatatsuak.
d) Linfomak.

41.- Gongoil-talde hauetako zein EZ da lehortzen D2 linfadenektomian?

a) 1. taldea.
b) 8. taldea.
c) 12a taldea.
d) 10. taldea.

42.- Konplikazio hauetako zein EZ zenuke esperoko aurkitzea urdaileko adenokartzioma distalagatiko gastrektomia subtotala duen paziente batengan?

a) Atxikitako antroaren sindromea.
b) Behazun-errefluxua.
c) Anemia.
d) Ahoko ultzera anastomotikoa.

43.- Zein da gastrektomia oso bat berreraikitzeko lehen aukera?

a) Kolona hestegorri eta duodeno artean egotea.
b) Jeiunoa hestegorri eta duodeno artean egotea.
c) Hestegorriko eta jeiunoko anastomosia Billroth II-n.
d) Hestegorriko eta jeiunoko anastomosia Roux-en Y erako teknika kirurgikoan.

44.- Aukeratu lotura ZUZENA:

a) Billroth II – Ahoko ultzera anastomotikoa izateko arrisku txikiagoa.
b) Billroth I – Behazun-errefluxua.
c) Dumping berantiarra - Hipergluzemia.
d) Dumping goiztiarra – Sintomak ahorakina hartu eta 2 ordura.

45.- Kirurgia bariatrikoko teknika hauetako zein EZ da aurreikusten gaur egun?

a) Behazuneko eta pankreako deribazioa.
b) Banda gastriko doigarria.
c) Gastroplastia bertikal eraztunkatua.
d) Bypass gastrikoa anastomosi batean.

46.- Gastrektomia bertikaleko interbentzioa egin dioten paziente batengan, zer konplikazio EZ zenuke esperoko aurkitzea kirurgia egin eta bi urtera?

a) Petersen-en hernia.
b) Errefluxu gastroesofagikoa.
c) Burdin eskasiagatiko anemia.
d) Pisu-errezidiba.

47.- Zein da teknika lehenetsia gastrektomia bertikalaren ondoren errefluxu gastroesofagiko larria duen paziente batentzat?

a) Behazuneko eta pankreako deribazioa.
b) Erregastrektomia bertikala.
c) Roux-en Y erako bypass gastrikoa.
d) Gastrektomia bertikalaren gaineko banda.

48.- Defizit hauetako zein aurki daiteke duodenoko gurutzatze bat duen paziente batean, baina EZ gastrektomia bertikal baten ondoren?

a) Erretinola.
b) B12 bitamina.
c) Burdina.
d) Tiamina.

49.- Aukeratu lotura OKERRA:

a) Duodenoko gurutzatzea – Teknika hipoxurgatzailea.
b) Gastrektomia bertikala – Errefluxu gastroesofagikoaren arriskua.
c) Roux-en Y erako bypass gastrikoa– Hipogluzemia-arriskua.
d) SADI-S – Lakio-oina.

50.- Kasu hauetako zeinetan hartzen da kirurgia geroratuaren indikaziotzat digestio-hemorragia handia duen paziente bat?

a) 3 motako Forrest-en ultzera.
b) 65 urte baino gehiagoko pazientea.
c) 1 cm baino gutxiagoko Forrest-en 2B ultzera duen paziente egonkortua.
d) Fibrina duen ultzera duen pazientea.

51.- Urdaileko eta duodenoko jatorria duen paziente batek digestio-hemorragia handia badu, zer arteria enbolizatu behar da?

a) Ezkerreko arteria gastroepiploikoa.
b) Urdaileko eta duodenoko arteria.
c) Eskuineko arteria gastroepiploikoa.
d) Ezkerreko urdialeko arteria.

52.- Kirurgia-keinu hauetako zein EZ dira kontuan hartzen premiazko kirurgia batean?

a) Bagotomia.
b) Ezkerreko arteria gastroepiploikoaren lotura.
c) Gastrektomia subtotala.
d) Urdaileko eta duodenoko arteriaren lotura.

53.- Hauetako zein da digestio-hemorragia handia duen paziente batek berriz odola jariatzeko duen arriskua baloratzeko eskala bat?

a) Rockall.
b) Child-Pugh.
c) SOFA.
d) Glasgow.

54.- Hemodinamikoki ezegonkorra den eta jatorri ultzeraduneko digestio-hemorragia handia duen paziente baten kasuan, zein izango litzateke lehen tratamendua?

a) Arterien zeharreko enbolizazioa.
b) Premiazko kirurgia.
c) Goiko eremuko digestio-endoskopia.
d) Serumterapia eta behaketa.

55.- Hauetako zein EZ da hautazko esplenektomiaren indikazio bat?

a) Purpura tronbozitopeniko idiopatikoa.
b) Esferozitosi hereditarioa.
c) Bare-infartu polarra, gastrektomia bertikalaren ondoren.
d) Anemia hemolitiko autoimmunea.

56.- Nola esaten zaio premiazko esplenektomian hemostasia hobea lortzeko egiten den maniobrari?

a) Kocher.
b) Gómez eta Gómez.
c) Makuuchi.
d) Kattel eta Braasch.

57.- Hauetako zein izan daiteke esplenektomiaren konplikazio bat?

a) Itsuaren lesioa.
b) Pankreako fistula.
c) Antrako lesioa.
d) Duodenoko zulaketa.

58.- Hauetako zein EZ litzateke esplenektomia baterako heltzetzat hartuko?

a) Laparoskopia ahoz beherako etzanerarekin.
b) Laparoskopia alboko etzanerarekin.
c) Laparotomia ertaina.
d) Heltze robotikoa.

59.- Esplenomegalia idiopatikoa izanez gero, zerk bideratuko du esplenektomiaren indikazioa?

a) Hark sortzen duen sintomatologiak.
b) Konplikazioak izateko arriskuak.
c) Behin betiko diagnostikoa izateko beharrak.
d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

60.- Hauetako zein EZ da hernia konpontzen duen teknika laparoskopiko bat?

a) TAPP.
b) TEPP.
c) IPOM.
d) Stoppa.

61.- Aukeratu lotura OKERRA:

a) Stoppa – Peritoneo aurrekoa eta aldebikoa.
b) Nyhus – Peritoneo aurrekoa eta aldebakarrekoa.
c) Grynfeldt – Aurreko hernia.
d) Richter – Alboko ziztada.

62.- Alderdi hauetako zein izan behar da aintzat abdomen-pareta konplexuko hernia baten konponketan?

a) Pazientearen nutrizio-egoera.
b) Tamaina eta kokapena.
c) Tabako-abstinentzia.
d) Aurreko guztiak.

63.- Zertan eragiten du hormako hernia duen paziente baten gehiegizko pisuak eta obesitateak?

a) Infekzio kirurgikoa izateko arrisku txikiagoan.
b) Konpontzeko erraztasun tekniko handiagoan.
c) Herniaren errezidiba-arrisku areagotuan.
d) Pisu normala duen pazienteak baino hernia txikiagoa izatean.

64.- Honako kasu hauetako zein EZ litzateke kontuan hartuko abdomen ireki baterako?

a) Hautazko esplenektomia, 30 cm baino gehiagoko barea duena.
b) Premiazko kirurgia paziente politraumatizatu larriarentzat.
c) Premiazko kirurgia goiko mesenterio-arteriako tronbosiagatiko hesteetako iskemia duen pazientearengan.
d) Abdomeneko sindrome konpartimentala, erretroperitoneoko odoljarioagatik.

65.- Hautatu aurreko hernia diafragmatikoaren izena:

a) Bochdaleck.
b) Hiatal.
c) Morgagni.
d) Garengot.

66.- Peritoneoko gaixotasun onkologikoaren hedadura ebaluatzen duen indizeari dagokionez, zein da ZUZENA?

a) HOBE da eta abdomena 3 segmentutan banatzen du.
b) HOBE da eta gehieneko balioa 9koa da.
c) HOBE da eta abdomena 9 eremutan banatzen du.
d) HOBE da, eta barrunbe abdominalaren 9 eremu eta heste meharreko beste 4 hartzen ditu kontuan.

67.- Hauetako zein EZ litzateke izango peritoneoko kartzinomatosiaren kirurgia-indikazio bat?

a) Peritoneoko pseudomixoma duen pazientea.
b) Peritoneoko mesotelioma.
c) Obulutegiko minbiziaren kartzinomatosia.
d) Pankreako minbiziaren kartzinomatosia.

68.- Egitura hauetako zein EZ luke kokatuko erretroperitoneoa?

a) Giltzurrun gaineko eskuineko guruinak.
b) Aorta arteriak.
c) Duodenoko lehen zatiak.
d) Kaba zainak.

69.- Duela urte batzuk energia handiko zirkulazio-istripu bat izan zuen paziente batek. Toraxeko erradiografia bat egin zaio barize-kirurgia baterako ohiko ebakuntza aurrerako, eta ikusi da ezkerreko hemitoraxean heste-lakioak dituela. Zein da zure susmoa?

a) Morgagni-ren hernia.
b) IV. motako hiato-hernia.
c) Spiegel-en hernia.
d) Bochdaleck-en hernia.

70.- 55 urteko emakumezko paziente bat kontsultara joan da disnea progresiboak eragindako pneumologia bat dela eta. Toraxeko erradiografia bat egin zaio, eta aurreko mediastinoko okupazioa erakusten du. Zein da aukera ZUZENA?

a) Bochdaleck-en balizko hernia.
b) Morgagni-ren balizko hernia.
c) Desplazamenduagatiko hiato-hernia.
d) IV. motako hiato-hernia.

71.- Sintoma hauetako zein espero duzu aurkitzea abdomen barneko infekzioa duen paziente batengan?

a) SIRS.
b) Takikardia.
c) Ileo paralitikoa.
d) Guztiak sintoma posibleak dira.

72.- Irizpide hauetako zein izango litzateke abdomen barneko abzesu baten drainatze kirurgikoan pentsatzeko irizpide?

a) Paziente egonkorra eta egoera orokorrean erasan txikia duena.
b) Lokulu anitzeko abzesua duen pazientea.
c) 9 cm-ko abzesua duen pazientea, larruazalean zeharreko drainatzerako irisgarria.
d) Kolekzio laminarra duen pazientea.

73.- Hauetako zein da abdomeneko traumatismo baten laparotomia-indikazioa?

a) FAST negatiboa duen paziente egonkorra.
b) Paziente egonkorra, abdomeneko lesio sarkorra eta likido librea duena OTn.
c) Traumatismo itxia, paziente egonkorrarekin.
d) Kolpatutako traumatismoa, egoera orokorrari erasan gabe, eta miaketa negatiboak dira.

74.- ABCren ebaluazioaren ondoren abdomeneko traumatismo itxia eta ezegonkortasun hemodinamikoa duen paziente batentzat, zer miaketatan pentsatuko zenuke?

a) FAST ekografian.
b) Toraxeko eta abdomeneko OTra igarotzean.
c) Premiazko kirurgia.
d) Arteriografia diagnostikoa.

75.- Kasu hauetako zeinetan EZ zenuke pentsatuko paziente politraumatizatu baten premiazko OT egitean?

a) Paziente egonkorraren trafiko-istripuan.
b) Serumterapiarekin egonkortzen den paziente baten zapalketak eragindako traumatismoan.
c) Abdomeneko traumatismo sarkorra duen pazientean, zeinaren BM 120x' den eta TA 95/65, 1.500 cc-ko zain barneko bolumenaren ondoren.
d) Traumatismo kraneoentzefalikoa eta kontzientzia-maila galdu duen pazientean, ezegonkortasunik gabe.

76.- Larruazaleko tumore hauetako zeinek du gaiztotzeko ahalmena?

a) Sebo-keratosiak.
b) Nebo epidermikoak.
c) Becker-en neboak.
d) Keratoakantomak.

77.- Hauetatik zein da anexuetatik datorren tumore bat?

a) Inklusio epidermikoaren kistea.
b) Nebo epidermikoak.
c) Lipoma.
d) Hemangioma.

78.- Hidradenitis zorne-jariatzaileari dagokionez, hautatu OKERRA:

a) Keratinazko tapoi baten ondoriozko ile-folikuluaren alterazioa da.
b) Gertakari bakarrak izan ohi dira.
c) Diziplina anitzeko heltzea eskatzen du.
d) Kasu batzuetan, farmako biologiko bidezko tratamendua behar izaten da.

79.- Mosh-en kirurgia mikrografikoari dagokionez, aukeratu erantzun OKERRA:

a) Tumorearen ertzak histologikoki kontrolatzeko aukera ematen du.
b) Piezak edozein patologok ebalua ditzake.
c) Indikazioa du errepikapenetan.
d) Baliagarria da betazalen inguruko tumoreetan.

80.- Zein da ZUZENA melanomaren tratamenduan?

a) Ez du behar ertzak dituen exeresirik.
b) Lesioaren eremuko linfadenektomia 1 cm baino gehiagoko tumoreetan agintzen da.
c) Gongoil zelatariaren hautazko biopsia gomendatzen da 0,8 mm-tik gorako Breslow-en indizea duten tumoreetan.
d) Lesio ultzeradunek pronostiko hobea dute.

81.- Miaketa hauetako zein ez da erabiltzen gaur egun sakoneko zainetako tronbosia diagnostikatzeko?

a) Doppler-en ekografia.
b) Angio-OT.
c) Angio-EM.
d) Flebografia.

82.- Pankreako ebakuntza bat egin dioten paziente bat ebakuntzaondokoan beheko eskuineko gorputz-adarreko edema izaten hasi da; mina eta tumefakzioa ditu. Hautatu aukera ZUZENA:

a) Litekeena mahai kirurgikoaren etzanera izatea da.
b) D dimeroa definitzailea izango da diagnostikorako, eta sentikortasun handia izango du.
c) Doppler-en ekografia bat eskatu behar da zain sakonetako tronbosi (ZST) bat baztertzeko.
d) Hipoproteinemiak eragindako edema da; beraz, nutrizioa hobetu beharko da.

83.- Klinika hauetako zeinek du lotura handiagoa enbolia arterialarekin tronbosi arterialarekin baino?

a) Bihotzeko arritmiak.
b) Aurretiazko klaudikazio-sintomek.
c) Iskemia kronikoaren zeinuek.
d) Arrisku kardiobaskularreko faktoreek.

84.- Hauetako zein EZ da gorputz-adarretako iskemiaren “6 p” -etako bat?

a) Zurbiltasuna.
b) Parestesiak.
c) Poikilotermia.
d) Pigmentazio gorrixka.

85.- Iskemia birperfusioaren sindromeari dagokionez, hautatu aukera ZUZENA.

a) Oxigenorik gabeko erradikalak askatzearen ondorio da.
b) Fisiopatologiak zerikusia du, batez ere, iskemian metabolismo aerobioa mantentzearekin.



c) Zitokinak askatzeak ehunetako osagai toxikoak murriztea ahalbidetzen du.
d) Tokiko erasana baino ez du; ez du eragin sistemikorik.

86.- Hautatu aukera ZUZENA, Siewert-en sailkapenari dagokionez.

a) GIST tumoreei egiten die erreferentzia.
b) Siewert-en I mailak, tumorearen epizentroa urdailerantz dago.
c) Siewert-en II mailan, tumorearen epizentroa lotura esofagogastrikoan dago, Z lerroan.
d) Siewert-en III maila kimioarekin eta erradioterapiarekin tratatzen da.

87.- Hauetako zein EZ da aurreikusten esofagostomia baten ondoren berreraikitzeko?

a) Urdaileko plastia kurbadura txikiaren gainean.
b) Eskuineko kolona.
c) Ezkerreko zeharkako kolona.
d) Jeiuno askea.

88.- Zer izen du apendize zekala duen herniak?

a) Grynfeldt.
b) Petit.
c) Amyand.
d) Richter.

89.- Hauetako zein hartzen da gastrektomia bertikaleko kontraindikaziotzat?

a) 40 kg/m2 baino gehiagoko GMI.
b) A mailako esofagitisa.
c) Hiato-hernia < 2 cm.
d) Barrett-en hestegorria.

90.- Konplikazio hauetako zein EZ zenuke esperoko aurkitzea bagotomia baten ondoren?

a) Kolelitiasia.
b) Urdaileko harria.
c) Sabela husteko ohituraren nahasmendua.
d) Behazun-errefluxua.

91.- Kolon eta ondesteko jatorria duten gibeleko metastasien erauzte-gaitasuna ebaluatzeko, aukera hauetatik zeinek du garrantzi txikiena?

a) Erabat erauzi ahal izatea (R0)
b) Gutxienez ondoko bi gibel-segmentu gorde ahal izatea, sarrera- eta irteera-baskularizazio egokiarekin.
c) Gibel-hondar egokia izatea.
d) Tumore primarioarekin batera agertzea.

92.- 45 urte baino gehiago dituzten eta arrisku kirurgikorik ez duten pazienteen kasuan, zein neurritatik aurrera gomendatzen da kolezistektomia egitea polipo besikularren bidez?

a) 2 mm.
b) 4 mm.
c) 6 mm.
d) 10 mm.

93.- Eskuineko hipokondriako mina eta Murphy-ren zeinu positiboa duen paziente baten kasuan, zein izango litzateke irudi-proba EGOKIENA diagnostikoaren susmoa berresteko?

a) Erresonantzia magnetiko nuklearra.
b) Ordenagailu bidezko tomografia axiala.
c) Abdomeneko ekografia.
d) HIDA bidezko gammagrafia hepatobiliarra.

94.- Hauetako batek EZ du adierazten erauzte-gaitasunik ez dagoenik Klatskin-en tumore batean:

a) N2 gongoiletako erasanaren ebidentzia (enbor zeliakoaren adenopatiak, goiko mesenterio-arteria edo paraaortikoak).
b) Alde bereko gibeleko arteriaren erasana.
c) Bismuth-en IV.
d) Gibelaren alde baten atrofia, aurkako aldeko behazun-inbasioarekin.

95.- Gaur egun, ikterizia duen paziente baten aurrean, zein izango da egin beharreko lehen irudi-proba?

a) Erresonantzia magnetiko nuklearra.
b) Abdomeneko ekografia.
c) Ordenagailu bidezko tomografia axiala.
d) Ekoendoskopia.

96.- Zein da behazun jatorriko pankreatitis akutuaren errepikapena prebenitzeko tratamendurik EGOKIENA?

a) Partington-Rochelle-ren ebakuntza.
b) Puestow-en ebakuntza.
c) Laparoskopia bidezko kolezistektomia.
d) Kolezistektomia eta behazun-bide nagusiaren drainatzea Kehr-en T hodiarekin.

97.- Zein da pankreatitis kronikoaren tratamendu kirurgikoaren indikazio nagusia:

a) Duodenoko estenosia.
b) Behazun-estenosia.
c) Bare-zainaren tronbosia esplenomegaliarekin.
d) Abdomeneko mina.

98.- Berry-ren loturak kirurgia tiroidean bere garrantzia du inguruabar guzti hauetan, SALBU ETA:

a) Trakearen fasziako estalkiaren parte da.
b) Kapsula tiroideoarekin lotzen da atzetik eta bi aldeetatik, eta lotailu esekitzaile bat osatzen du.
c) Paratiroideekin duten harremana dela eta.
d) Nerbio laringeo atzerakoiarekin duen lotura dela eta.

99.- Abdomen barruko infekzio baten laginak jaso eta prozesatzean, jarraibide tekniko hauetako zein da testuaren gomendio esplizitua?

a) Bidalitako lagin-kopurua da patogenoen detekzio-tasa handitzeko faktore nagusia.
b) Abzesuaren erdialdean laginak hartzea lehenetsi behar da, ahalik eta zorne-kopuru handiena metatzeagatik.
c) Ahal den guztietan, lagina xiringa bidez jaso behar da, eta hutsean dauden ontzietan inokulatu, anaerobioentzako garraiobidea erabiliz.
d) Bilioiak dira bakterio anaerobio zorrotzen bideragarritasun luzea ziurtatzeko metodo egokiena.

100.- Zein ehuneko du zelula folikularretatik sortutako ongi bereizitako tiroide-minbiziak?

a) % 20tik % 25era.
b) % 50etik % 55era.
c) % 70etik % 75era.
d) % 90etik % 95era.

101.- Tiroideko kartzinoma papilarrari dagokionez, baieztapen hauetako zein EZ da zuzena?

a) Bereizitako tiroideko bigarren minbizi mota da.
b) Tiroide-masak izan ditzakete, bai gizonezkoetan, bai emakumezkoetan, eta ia edozein adinetan.
c) Tiroideko kartzinoma papilarraren tratamendu nagusia ablazio kirurgikoa da.
d) Urrutiko metastasiak ez dira oso ohikoak, baina pronostiko txarra dute.

102.- Zein da I. motako neoplasia endokrino anizkoitzaren sindromearen ezaugarria?

a) Tiroideko muineko kartzinoma, pankreako tumore neuroendokrinoak, duodenoa, bronkioetako kartzinoideak, timokoak eta aurreko hipofisiaren adenomak.
b) Paratiroideko hiperplasia, pankreako tumore neuroendokrinoak eta duodenoa, bronkioetako kartzinoideak, timokoak eta aurreko hipofisiaren adenomak.
c) Paratiroideko hiperplasia, feokromozitomak, bronkioetako kartzinoideak, timokoak eta aurreko hipofisiaren adenomak.
d) Tiroideko kartzinoma folikularra, pankreako tumore neuroendokrinoak, duodenoa, bronkioetako kartzinoideak, timokoak eta aurreko hipofisiaren adenomak.

103.- Giltzurrun gaineko kartzinoman, zein dira gaiztotasunaren irizpide absolutuak?

a) 4-6 cm-ko tumoreak.
b) Tumore hiperfuntzionatzaileak.
c) Urrutiko metastasia edo ondoko egituren inbasioa duten tumoreak.
d) Tumore-errezidiba.

104.- Hestegorriko manometria erabilgarria da egoera hauetan guztietan, batean IZAN EZIK:

a) Hestegorriko motore primarioaren nahasmenduaren diagnostikoa ezartzeko (akhalasia, espasmo lausoa, etab.).
b) Errefluxu bidezko gaixotasunaren eta endoskopia normalaren sintoma tipikoak dituzten pazienteak ebaluatzeko, PBI bidezko tratamenduarekiko errefraktarioak badira.
c) PH-elektrodoa azterketa phmetriko anbulatorioetan behar bezala kokatzen laguntzeko.
d) Sintoma atipikoak, hala nola disfagia edo toraxeko mina, dituzten errefluxua duten pazienteetan.

105.- Hestegorriko zulaketan, faktore hauek guztiek pronostikoa iluntzen dute, batek IZAN EZIK:

a) Mukosaren esposizio osatugabea konponketa egitean.
b) Diagnostikoaren atzerapena.
c) Buxadura distala.

d) Zuzeneko josturaren bidez konpontzea.

106.- Kardietako akalasiak ezaugarri hauek ditu, bat IZAN EZIK:

a) Muskulu ildaskatuaren mugimenduaren nahasmendu primarioa da.
b) Hestegorriko gorputzaren peristaltismo-eza du ezaugarri.
c) Ezaugarri du HGI ez izatea gai erlaxatzeko, irensketaren erantzun gisara.
d) Ezaugarri makroskopiko bereizgarri du hestegorriko gorputzaren dilatazioa, segmentu distal estu batean amaitzen dena.

107.- Hestegorriko dibertikulu mota hauetako zein dira pultsiokoak edo faltsuak?

a) Zenker-en dibertikulua.
b) Dibertikulu epifrenikoa.
c) Toraxeko dibertikulua.
d) a) eta b) zuzenak dira.

108.- Hestegorriko tumoreetan, hauek guztiak erauzte-irizpidetzat hartzen dira, bat IZAN EZIK:

a) Pleuraren, perikardioaren edo diafragmaren infiltrazioa.
b) T4b tumoreak, bihotza, hodi handiak edo ondoko organoak infiltratuta dituztenak.
c) Lotura esofagogastrikoko tumoreak, klabikula gaineko adenopatia positiboekin.
d) Hestegorri zerbikaleko tumoreak (< 5 cm muskulu krikofaringeotik).

109.- Ivor Lewis bat egin ondoren, iskemia garrantzitsu bat edo plastia gastrikoaren nekrosia detektatzen bada, tratamendu hau jarraitu beharko da:

a) Toraxeko drainatzea eta espektro zabaleko tratamendu antibiotikoa.
b) Plastia erauztea eta berreraikitzean kolonaren interposizioa.
c) Plastia erauztea, zerbikostomia eta elikadura-jeiunostomia.
d) Protesi endoskopikoa jartzea.

110.- Hestegorriko leiomiomari dagokionez, baieztapen hauetako zein EZ da zuzena?

a) Hestegorriko tumore onbera ohikoena da.
b) Gehienbat erdiko eta beheko herenean dago.
c) Muskulu ildaskatuaren zelula argietan sortzen da.
d) Kasu gehienetan, hazkundea oso motela da.

111.- EGEri (errefluxu gastroesfagikoari) dagokionez, kirurgiako indikazio absolututzat hartzen dira honako guztiak, bat IZAN EZIK:

a) Errepikapeneko arnas konplikazioak (xurgapena, pneumonia, laringitis kronikoa, etab.)
b) Ez ematea erantzun osorik, nahiz eta tratamendu mediko zuzen eta kontrolatuan egon. Sintomek eta lesio endoskopikoek iraun egiten dute sintomarik gabeko pazienteengan.
c) Barret-en hestegorria.
d) Errepikapeneko fenomeno hemorragikoak.

112.- Hiato-hernia paraesofagikoetan (HPE), kontzeptu hauek guztiak egiak dira, bat IZAN EZIK:

a) Hernia paraesofagikoek ezaugarri dute peritoneoko zaku bat izatea.
b) Lotura esofagogastrikoaren igoera dute ezaugarri.
c) Herniatzen den lehenengo gauza fundusa da.
d) HPEek bolbulaziorako joera dute.

113.- Ultzera peptikoan, honako baieztapen hauetako zein da ZUZENA?

a) Ultzeraren zulaketa da ultzera peptikoan sarrien gertatzen den lehenengo konplikazioa.
b) Kokapenik ohikoena duodenoko erraboila da.
c) Duodenoko ultzera nagusitzen da ekialdeko populazioan.
d) Ohikoagoa da emakumeetan.

114.- Urdaileko minbiziaren kasuan, tratamenduaren oinarri hauek zuzenak dira, bat IZAN EZIK:

a) Minbizi gastrikoa modalitate anitzeko tratamendua jaso dezakeen gaixotasuna da, eta diziplina anitzeko batzorde baten testuinguruan baloratu behar da.
b) Mukosara mugatutako 2 cm baino gutxiagoko tumoreetan, zeinak ultzera-aldaketarik ez duen (0-I eta 0-IIa motak) eta ondo bereizita dagoen, mukosa-erauzketa endoskopikoa egin daiteke.
c) T0-1-2 N0 tumoreen tratamendu lehenetsia kirurgia primarioa da. Gainerako pazienteek tratamendu konbinatu, neoadjubante edo adjubantea jasotzen dute.
d) 1 cm baino gutxiagoko 0-IIb eta 0-IIc tumoretan, zeinetan ez dagoen inbasio linfatikorik edo baskularrik, mukosa-erauzketa endoskopikoa egin daiteke.

115.- Kirurgia bariatrikoko teknika hauetako zeinek erakutsi ditu emaitzarik onenak pisu-galerari eta komorbilitate-bereizteari dagokionez, batez ere 2 motako Diabetes mellitusean?

a) Gastroplastia bertikal eraztunkatuak.
b) Gastrektomia bertikalak.
c) Urdaileko bypassak.
d) Behazuneko eta pankreako deribazioak.

116.- Baieztapen hauetako zein EZ da egia, kirurgia bariatrikoaren ebakuntza inguruko aldiari dagokionez?

a) Loaldiko buxatze-apnearen sindromea (LBAS) duten pazienteetan, extubazioaren ondoren berrabiarazi behar da CPAPa.
b) Ebakuntza aurretik pisuaren % 5-15 artean galtzeak gibelaren tamaina murrizten du eta lotura gastroesofagikoaren ikuspegia hobetzen du.
c) Biriketako tronboenbolismoa prebenitzea pisu molekular txikiko heparinarekin ez da beharrezkoa kirurgia bariatrikoaren ebakuntzaondokoan.
d) Urdail barneko baloia agindu daiteke kirurgia bariatrikorako hautagai diren pazienteetan, zeinak azkar galdu behar duten pisua, arrisku kirurgikoa eta anestesikoa murrizteko.

117.- Faktore hauetako zein EZ dago lotuta kirurgia bariatrikoan ihes anastomotikoaren intzidentzia handitzearekin?

a) Gorputz-masaren indizea 50 kg/m2-tik beherakoa izatea.
b) Kirurgia-taldearen esperientziarik eza.
c) 2 motako diabetes mellitusa.
d) 65 urtetik gora izatea.

118.- Proba diagnostiko hauetako zein gomendatzen da berriki kirurgia bariatrikoa egin zaion paziente baten abdomen akutuaren kausa identifikatzeko?

a) Abdomenaren ekografia.
b) Gastroskopia.
c) Abdomeneko OTA ahozko kontrastearekin.
d) Erresonantzia magnetikoa.

119.- Heste meharreko dibertikuluei buruz (Meckel-en dibertikulua), adieraz ezazu zein den EGIA:

a) Zeinu klinikoak konplikazioekin lotutakoak dira (odoljario digestiboa, hesteetako buxadura, dibertikulitisa eta neoplasia).
b) Adin pediatrikoan, odoljarioa da zeinurik ohikoena.
c) Helduaroan, buxadura da zeinurik ohikoena.
d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

120.- Heste eta larruazaleko fistulen tratamendu kontserbatzailearen helburua da fistulak berez ixtea; hala ere, batzuetan beharrezkoa da tratamendu kirurgikoa. Jarraian zerrendatutako faktoreek pronostiko txarra dute heste eta larruazaleko fistula bat berez ixtean, batek IZAN EZIK. Zeinek?

a) Etiologia neoplasikoak.
b) Malnutrizioa, transferrina < 200 mg/dL.
c) Sepsia egoteak.
d) Jariaketa txikia < 200-500 mL/egun.

121.- Crohn-en gaixotasunaren teknika kirurgikoei dagokienez, hautatu ZUZENA:

a) Estrikuturoplastiak hesteetako argiaren kalibrea handitzea ahalbidetzen du, erauzketarik egin behar gabe.
b) Heineke-Mikulicz teknikan, luzetara irekitzen da estenosia duen segmentua, eta zeharka ixten da.
c) Estenosia 12-15 cm-tik gorakoa denean, hobe da Finney-ren teknika erabiltzea.
d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

122.- Patologia hauetako zeinek erakusten du ondeste eta uzkiko erreflexu inhibitzaile alteratua?

a) Muineko lesioak.
b) Diabetes mellitusak.
c) Proktitis aktinikoak.
d) Hirchsprung-en gaixotasunak.

123.- Hinchey II-a zer duen dibertikulitisari dagokio?

a) Peritonitis jeneralizatu fekala duen dibertikulitisari.
b) Koliko inguruko edo mesenterioko flemoi-abzesua duen dibertikulitisari.
c) Pelbiseko abzesu duen dibertikulitisari.
d) Peritonitis jeneralizatu zornetsua duen dibertikulitisari.

124.- Hauek dibertikulitisaren larritasun-irizpide erradiologikoak dira, SALBU ETA:

a) Horma kolikoa 5 mm-tik gora loditzea.
b) Abzesuak egotea.
c) Lumenaz kanpoko airea.
d) Lumenaz kanpoko kontrastea.

125.- Zer genek eragiten du Poliposis Adenomatosa Familiarra?

a) APCk (Adenomatous Polyposis Coli).
b) MYHk.
c) APFk (*Adenomatous Polyposis Familiae*).
d) PAFAk.

126.- Zein da 9 mm-ko apendizeko tumore kartzinoidearen tratamendua?

a) Apendizektomia.
b) Eskuineko hemikotomia linfadenektomia erregionalarekin.
c) Erauzketa ileozekala.
d) Somatostatina.

127.- Zein erauzketa gomendatzen da goiko hereneko ondesteko tumoreetan?

a) Mesondestearen guztizko exeresia.
b) Erauzketa lokala.
c) Mesondestearen exeresi partziala, tumorearen ertz distaletik 5 zentimetrora.
d) Mesondestearen exeresi partziala, tumorearen ertz distaletik 2 zentimetrora.

128.- Zein da odoljario digestiboaren kausarik OHIKOENA?

a) Angiodisplasia.
b) Kolon eta ondesteko minbizia.
c) Kolitis infekziosoa.
d) Dibertikulu-gaixotasuna.

129.- "Zurrunbiloaren zeinua" honela ikusten da OTAn:

a) Kolitis iskemikoa.
b) Kolitis ultzeraduna.
c) Kolonen bolbulua.
d) Koloneko minbizi okluitua.

130.- Polipo hamartomatosoak zerekin EZ dira lotzen?

a) Peutz-Jeghers-en sindromearekin.
b) Gazteentzako poliposiarekin.
c) Familiako poliposi indargetuarekin.
d) Cowde-ren sindromearekin.

131.- Hemorroide-kirurgiaren konplikazioei dagokienez, zer da ZUZENA?

a) Estenosia ohikoa da, eta anodermo-zubiak babestearen emaitza da.
b) Aurrez ezarritako faktoreak daudenean, kirurgia egoki batek uzki-esfinterraren ihesa eragin dezake.
c) Uzkiko buxadurak odoljarioa prebenitzen du, baina atzeranzko odol jarioa eragin dezake.
d) Gernu-erretentzioa prebenitzeko, likido-gehigarri egokia erabili behar da.

132.- Barruko hemorroideen kontsulta-tratamenduari dagokionez:

a) Esklerosia aste gutxira errepika daiteke.
b) Esklerosi hemorroidala da kontsulta-prozedura hedatuena.
c) Kriokirurgiak analgesia eragiten du eta ondo onartutako tratamendua da.
d) Metaanalisi batek erakutsi du I., II. eta III. mailetarako hobea dela kirurgia, bandekin lotzea baino.

133.- Peritoneoko kartzinomatosiari dagokionez, hautatu erantzun OKERRA:

a) Heste meharreko oklusioa eta aszitisa dituen paziente baten kasuan, peritoneoko kartzinomatosia diagnostiko diferentzial posible gisa hartu behar dugu.
b) Abdomen barneko tumorearen kirurgiaren aurrekaria eta hesteetako oklusio gaiztoaren koadro klinikoa duen paziente baten kasuan, kausarik ohikoena errezidiba lokala da, eta ez peritoneoko kartzinomatosia.
c) Tumore-zelulak peritoneo-barrunbean barreiatzearen emaitza da. Tumore digestibo edo ginekologikoetan dute jatorria, baina inoiz ez abdomenetik kanpo.
d) Peritoneoko kartzinomatosiaren tratamendu aringarrirako pronostiko txarreko faktoreak dira pazientearen egoera orokor txarra, kolon eta ondesteko jatorria, aszitisa eta peritoneoko edo heste meharreko erasanaren hedapena.

134.- Ahuldutako pazienteen edo adinekoen epidemiologiari eta bakterio-erresistentziari dagokienez, zer nitxo adierazten da erresistentzia anitzeko anduien (SARM, E. faecium eta P. aeruginosa) larruazaleko gordailu garrantzitsu gisa?

a) Bularraldeko sebo-hodi sakonak.
b) Goiko traktu genitourinarioko mukosa-kriptak.
c) Ultzera baskularrak.
d) Ospitale-aurrekaririk ez duten pazienteen aurreko sudur-hobiak.

135.- Hauetako zein EZ da lotzen iztaiko hernia bat agertzearekin?

a) Tabakoa.
b) Aortako aneurisma bat egotea.
c) Kirola.
d) Aszitisa.

136.- Iztaiko hernien zein sailkapen gomendatzen da gaur egun?

a) European Hernia Societyren sailkapena.
b) Gilbert-en sailkapena.
c) Nyhus-en sailkapena.
d) Stoppa-ren sailkapena.

137.- Dentsitate txikiko polipropilenozko sareak, pisu txikikoak bezala ezagutzen direnak, zer kantitateren azpitik daude?

a) (35 gr/m2).
b) (50 gr/m2).
c) (80 gr/m2).
d) (100 gr/m2).

138.- Paziente politraumatizatu bat ebaluatzeko eta tratatzeko lehentasunak ABCD dira, baina zeintzuk dira haurdun dagoen paziente politraumatizatu batean?

a) Lehentasuna fetua da.
b) Lehentasunak beste edozein paziente traumatikoren lehentasun berberak dira.
c) Lehenik eta behin, fetuaren taupada monitorizatu behar da.
d) Lehenik eta behin, amaren zirkulazioa ebaluatu behar da.

139.- Zein da hiperparatiroidismo primarioaren kausa OHIKOENA?

a) Paratiroideko kartzinoma.
b) Guruin anitzeko gaixotasuna.
c) Adenoma paratiroideoa.
d) Giltzurrun-gutxiegitasun kronikoa.

140.- Zer desberdintasun nagusi ezartzen ditu testuak "fakultatiboak" eta "hartzitzaileak ez diren bazilo gramnegatiboen" (frantses eskola) artean?

a) “fakultatiboak” oxigenorik gabe bakarrik hazten dira, eta hartzitzaileak ez direnak, berriz, edozein atmosferatan.
b) “fakultatiboak” hazi egiten dira oxigenoa dagoenean zein ez dagoenean; hartzitzaileak ez direnak aerobio zorrotzak dira eta oxigenoa dagoenean bakarrik hazten dira.
c) Bakterio fakultatiboak gramnegatiboak baino ez dira; hartzitzaileak ez direnek, berriz, koko grampositiboak dituzte.
d) “fakultatiboak” oxigenoak suntsitzen ditu; hartzitzaileak ez direnek pitxer anaerobioen atmosferak soilik jasaten dituzte.

141.- Noiz izan behar da jatorri genetikoko hiperparatiroidismo primarioaren sindromea dagoen susmoa?

a) Adenoma paratiroideo batek eragindako hiperparatirodismo primario bat diagnostikatzen denean.
b) 40 urtetik beherako paziente batean hiperparatiroidismo primarioa diagnostikatzen denean.
c) Hormona paratiroideoa (PTH) 300 baino handiagoa denean.
d) Kaltzioa 12 baino handiagoa denean.

142.- Zein da larruazalpeko tumorerik OHIKOENA?

a) Lipoma.
b) Neurofibroma.
c) Hemangioma.
d) Hamartoma.

143.- Zein da larruazaleko tumorerik OHIKOENA arraza zurian?

a) Melanoma.
b) Kartzinoma epidermoidea.
c) Zelula basaletako kartzinoma.
d) Sarkoma.

144.- Urdail-hesteetako estroma-tumoreei (GIST) dagokienez:

a) Metastasi linfatikoak garatzen dituzte; beraz, linfadenektomia egitea beharrezkoa da.
b) GIST lokalizatuan tratamendu lehenetsia kirurgia da.
c) Ez dute metastasirik garatzen gibelean eta peritoneoan.
d) Ez da heltze laparoskopikorik egin behar, lesioaren sasikapsula hausteko arriskua dagoelako.

145.- Zein da erretroperitoneoko sarkomaren histologia motarik OHIKOENA?

a) Leiomiosarkoma.
b) Osteosarkoma.
c) Liposarkoma.
d) Errabdomiosarkoma.

146.- Zertan datza erretroperitoneoko sarkomen kirurgia konpartimentala?

a) Tumorearen exeresian bakarrik.
b) Tumorearen eta alboko peritoneoaren exeresian.
c) “Blokean” egiten den kirurgia da, eta kasu gehienetan tumoretik gertu dauden organo osasuntsuak, hala nola giltzurruna edo kolona, sartu behar dira.
d) Tumorearen eta erretroperitoneoko koipearen exeresia.

147.- Fluidoen estrategia perioperatorioen barruan, zer fenomeno kliniko edo desabantaila potentzial lotzen zaio zuzenean helburuek zuzendutako monitorizaziorik gabeko "erregimen murriztaile" baten aplikazio zorrotzari?

a) Makromolekulen gaindosi masiboa, tronbomodulina plaketarioa berehala suntsitzen duena.
b) Gorputz-pisuaren irabazi masiboa, existitzen ez den hirugarren espazioan ur librearen metaketa behartuaren ondorioz.
c) Talde medikoak klinikoki hauteman ezin duen hipobolemia ezkutua agertzea.
d) Erdiko erantzun sinpatiko-adrenomedular osoa 10 minutu baino gutxiagoan kentzea.

148.- **60 urteko gizon bat kontsultara etorri da anbulatorioko digestiboak hala bidalita, gibeleko espazioa okupatzen dioen lesio bat duelako (GEO). Azterketa analitikoan ikusi da 2.1 mg/dL-ko bilirrubina, gibeleko entzima normalak, 98.000 plaketa eta 158 ng/mL alfa-feto proteina dituela. OTA trifasiko bat egiten da, eta adierazten du lobulu kaudatuaren hipertrofia duela eta 5. segmentuan 3 cm-ko LIRADS 5 lesio bat dagoela. Tratamenduari dagokionez, hauetako zein da ZUZENA?**

a) Pazienteak Milango irizpideak betetzen ez dituenez, garrantzitsua da azterketa ekografiko bat egitea, larruazaleko ablazio posiblea baloratzeko.
b) Badirudi gibeleko transplantea ez dela egokia, San Frantziskoko irizpideak gainditzen dituelako.
c) Gibeleko kirurgia da aukera terapeutiko nagusia, baina MELDa eta portako hipertentsioaren (PHT) maila baloratu beharko dira.
d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

149.- **Gibeleko transplantearen (GT) indikazioari dagokionez, baieztapen hauetako zein EZ da ZUZENA?**

a) Child Pugh-en sailkapenak oraindik ere itxaron zerrendako lehentasun-eredu nagusia izaten jarraitzen du.
b) Gibeleko Kings-College Ospitalearen irizpideak erabiltzen dira gehien bat-bateko gibeleko hutsegitean gibeleko transplantea agintzeko.
c) Portako tronbosia kontraindikazio erlatiboa da.
d) GTa agintzen zaie % 90 edo gutxiagoko bizi-itxaropena duten hepatopatia terminaleko pazienteei.

150.- **Gibeleko transplantearen indikazioei dagokienez, hautatu erantzun ZUZENA:**

a) Alkoholagatiko zirrosia da gure eremuan indikaziorik ohikoena.
b) Gibeleko polikistosia agindu daiteke, bizi-kalitatearen narriatzea dela eta.
c) Hiloko kolangiokartzinoma erauzgaitza agindu daiteke zuzendutako irrati- eta kimioterapia-protokoloen testuinguruan.
d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

151.- **Garun-heriotzan dagoen emaileari erauzketa egiteari dagokionez:**

a) Hemodinamikoki egonkorrak diren emaileetan, hautatzeko teknika Nakazato-k deskribatutakoa da.
b) Hemodinamikoki ezegonkorrak diren pazienteetan, helburu nagusia gibela azkar hoztea da.
c) Garrantzitsua da heparina sodikoarekin heparinizatzea, aortaren eta beheko mesenterio-zainaren kanulazioaren ondoren.
d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.



152.- Gibeleko transplantea jaso duen pazientearen kasuan, hautatu OKERRA:

a) Ezohiko konplikazioa bada ere, dardarak agertzen direnean beharrezkoa da medikamentuen neurotoxikotasuna baztertzea.
b) Zelulen errefusa akutua (ZEA) gibeleko transplantea egin eta egun gutxira agertzen da (5-14 egun), eta oso ondo erantzuten dio tratamendu immunoezabatzaileari.
c) ZEAk nahasmendua izatean du gibeleko funtzioaren probetan, baina biopsiaren bidez baieztatzen da beti.
d) Operazio-tolerantzia klinikoa pazienteen % 80an ikusten da, epe luzerako immunoezabatzaileak kentzean.

153.- Mentuaren akats primarioari dagokionez:

a) Transplantearen konplikazio larria da, transplantearen osteko lehen astean mentua galtzea dakarrena.
b) Tratamendu eraginkor bakarra premiazko birtransplantea da.
c) Emaile urtetsua, makroesteatosi moderatua eta iskemia hotz luzea dira aldez aurreko faktoreak.
d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

154.- Pankreaseko transplanteari dagokionez, hautatu erantzun OKERRA:

a) Kontrol metaboliko zuzen baterako eraginkortasuna erakutsi duen terapia bakarra da.
b) Hartzaileen hautaketak zorrotza izan behar du, xedea fase itzulgarrian dauden gaixoak transplantatzea baita.
c) I motako diabetesak eraginda giltzurrun-gutxiegitasun kronikoaren garatzea kontraindikazio nagusietako bat da.
d) Paziente jakin batzuen kasuan, giltzurrun-transplantea gehitu behar zaie.

155.- Pankreako transplantearen ondorengo tronbosi baskularrari dagokionez:

a) Konplikazio horrek gutxitan baldintzatzen du mentuaren galera.
b) Ez da oso gomendagarria profilaxia egitea heparina erabilita.
c) Hipergluzemia izanez gero edo amilasa handituz gero, tronbosiaren susmoa izan behar da, eta hori doppler-en ekografiaren edo angio-OTAren bidez baieztatu behar da.
d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

156.- Hesteetako transplantean, hauetako bat EZ da EGIA:

a) Heste motzagatiko hesteetako gutxiegitasun itzulezina ohiko indikazioa da.
b) Gibeleko gaixotasun kronikoaren garapenak gibeleko eta hesteetako transplante konbinatua egitera behartu dezake.
c) GIST baten aurrekaria izatea kontraindikazio absolutua da.
d) Ebaluazio indibidualizatua egin behar da hesteetako transplanteen modalitateetan aukerarik onena zein den baloratzeko.

157.- Heste-emaileen onarpen-irizpideen artean, honako hauek daude, SALBU ETA:

a) 9 ordu baino gutxiagoko iskemia hotza.
b) Emaileak 45 urte baino gutxiago izatea.
c) Bihotz-geldialdian dauden emaileak.
d) Obesitaterik ez izatea.

158.- Pankreako anatomia kirurgikoari dagokionez, hautatu erantzun OKERRA:

330.- Zenbait egoeratan, paziente batek farmakoen erabileragatiko alterazioa du. Egoera hauetako zein dagokio tratamendu ZUZEN bati?

a) Heparina sodikoa erabiltzeak eragindako alterazioa desmopresina bidez tratatu behar da.
b) Azenokumarola erabiltzeak eragindako alterazioa K bitaminaren bidez tratatu behar da.
c) Dabigatranek eragindako alterazioa Adexanet bidez tratatu behar da.
d) Pisu molekular txikiko heparinak eragindako alterazioa koagulazioaren VII faktorearekin tratatu behar da.

331.- Anastomosien orbaintze-prozesu biologikoari dagokionez, zein da ZUZENA?

a) Geruza submukosoak, kolageno-zuntzetan duen eskasia dela eta, erresistentzia eskasa du trakzioarekiko eta distentsioarekiko.
b) Mukosaren ebertsioak anastomosi baten orbaintze-prozesua errazten du.
c) Ikusi da geruza serosorik ez duten digestio-hodiko segmentuetan arrisku txikiagoa dagoela dehiszentzia edo ihes anastomotikoa izateko.
d) Hesteetako mikrobiotaren alterazioa fenomeno infekziosoekin eta orbaintze anastomotikoaren aldaketekin lotzen duen ebidentzia zientifikoa dago.

332.- Desnutrizioari eta horri lotutako konplikazioei dagokienez, zein da ZUZENA?

a) Sarkopeniak ezaugarri du muskulu-masa eskeletikoa eta indar muskularra pixkanaka eta modu orokortuan galtzea.
b) Sarkopenia ezin da dinamometro batekin diagnostikatu.
c) Nutritional Risk Screening NSR 2002rekin pazientea baloratzeak nutrizio-arriskua duten gaixoak iragartzen ditu, eta sektore defizitarioaren berri ematen du (muskularra, erraietako proteina edo erreserbako gantza).
d) Gassull-en metodoa , zeina trizepsaren tolesturan, besoaren perimetroan eta albuminaren neurketan oinarritzen den, baliagarriagoa da ebakuntzaondoko bizkortze unitateetan nutrizio euskarrirako hautagai diren pazienteentzat.

333.- Kirurgia robotikoari dagokionez, baieztapen hauetako zein da GEZURRA?

a) Hiru dimentsioko sentsazioa berreskuratzen da.
b) Eskuaren mugimenduen askatasun-mailak kirurgia irekiaren antzekoak dira.
c) Hainbat prozeduren ikaskuntza-kurba laburragoa da.
d) Ukimenaren berreskurapena kirurgia irekian bezalakoa da.

334.- 12 mmHg-ko CO2 duen pneummoperitoneoa egoteak zer EZ du eragiten?

a) Odol-itzulera murriztea.
b) Giltzurrunetako hipoperfusioagatiko oliguria.

c) Arnasbidearen presioa handitzea.
d) Alkalosi metabolikoa.

335.- Zer EZ zaio egin behar paziente zaharrari kirurgian, ebakuntzaondoko delirioaren prebentzioari dagokionez?

a) Pazienteari senide batek lagun diezaion sustatu.
b) Kalitate sentsoriala mantendu (ikusmena, entzumena), betaurreko eta audifonoekin, hala behar izanez gero.
c) Mina ahalik eta gehien murriztu, baina morfikoak erabiltzea saihestuta.
d) Pazientearen ohiko bitartekaritza ezabatu.

336.- Hauetako zein EZ da laparotomia osteko ebakidurako herniaren faktore lagungarri bat?

a) Premiazko kirurgia.
b) Desnutrizioa.
c) Hipertentsio arteriala.
d) Aurretiazko laparotomia.

337.- Infekzio kirurgikoa prebenitzeko neurriei dagokienez, hautatu esaldi OKERRA:

a) Zain barneko profilaxi antibiotikoa, aginduta badago, infekzio kirurgikoaren tasak murrizteko neurri eraginkorra da.
b) OMEren arabera, ez da tratamendu immunoezabatzaile bat eten behar infekzioaren prebentzio-neurri gisa.
c) Larruazaleko babes itsasgarriak abdomeneko kirurgian gomendatzen dira.
d) Ez dago gomendio argirik zauri kirurgikoan erabili beharreko apositu esteril motari buruz.

338.- Kokapen kirurgikoko infekzioari (KKI) dagokionez, zein da ZUZENA?

a) EPINE ikerketaren arabera, hirugarren infekzio nosokomial ohikoena da, pneumoniaren eta gernu-infekzioaren ondoren.
b) Gainazaleko ILQa 60 egun igaro arte gertatzen da, eta larruazala eta larruazalpeko ehuna erasaten ditu.
c) Abdomeneko kirurgian, Gram bazilo negatiboak dira etiologiarik ohikoena.
d) Infekzio organo-kabitarioak ez du morbimortalitate handirik eragiten.

339.- Zein da ZUZENA ebakuntzaondoko infekzio kirurgikoaren tratamendu antibiotiko enpirikoan?

a) Ebakuntzaondoko arrisku txikiko infekzioa duen paziente baten kasuan, nahikoa izan daiteke piperazilina-tazobaktam pautatzea.
b) Lehen antibiotiko enpirikoa pautatzean, ez dira oso garrantzitsuak bakterio multirresistenteen aurkako arrisku-faktore indibidualak.

c) Ez da ohikoa flora mistoa izatea infekzioaren eragilea, eta, beraz, gram negatiboak soilik estali behar dira.
d) Sepsia edo shock septikoa duten pazienteetan ez da beharrezkoa pseudomonak edo bakterio multierresistenteak estaltzea.

340.- Paziente immunodeprimitu baten abdomeneko infekzioari dagokionez, zein da ZUZENA?

a) Ez da oso ohikoa bakterio multirresistenteak dituen infekzio nosokomiala.
b) Bare-abzesuaren etiopatogenia immunoezabatzearekin lotzen da kasuen % 10-18an.
c) Tratamendu antibiotiko enpirikoa protokolo bidez pautatzen da, eta immunodeprimitu gabeko pazienteenaren parekoa da.
d) Entamoeba histolyticagatiko abzesu hepatikoa ez da GIB bidezko infekzioarekin lotzen.

341.- 40 urteko gizon gizen batek 8ko Glasgowa du, eta garezurreko OTA bat behar du. Eskanerrera eraman aurretik, zer egin beharko zenuke?

a) Droga lasaigarri gehiago eman.
b) Arnasbideetarako hestegorriko leiho anitzeko gailu bat txertatu.
c) Behin betiko arnasbidea ezarri.
d) Bizkarrezurraren alboko plaka bat eskatu.

342.- 30 urteko gizon batek labankada bat jaso du eskuineko hemitoraxean. Larrialdi-zerbitzura iristean, arnasa hartzeko zailtasun handiak ditu. Bihotz-maiztasuna 120koa da, eta tentsioa 80/50 mmHg-koa. Bere zain jugularrak ez daude handituta. Toraxaren auskultazioan, eskuineko aldeko besikularen murmurioa murriztu egiten da, atzeko aldeko perkusioaren matetasun batekin. Aurkikuntza horiek zerekin dira SENDOAGOAK?

a) Tentsioagatiko pneumotoraxarekin.
b) Bihotz-buxadurarekin.
c) Hipobolemiarekin, gibeleko lesioagatik.
d) Hemotoraxarekin.

343.- 44 urteko gizonezko batek erredurak izan ditu beheko bi gorputz-adarretan, perineoan eta genitaletan. Zein da erretako gorputz-azalera, bederatzien erregelaren arabera?

a) % 37.
b) % 36.
c) % 19.
d) % 18.

344.- 61 urteko emaile baten gibeleko mentu baten aurrean gaude. Emaile horrek garun-heriotza izan zuen, % 40ko esteatosi makrobesikularrarekin eta fibrosirik gabe. Zein da baieztapen ZUZENA, baliagarritasunari begira?

a) Esteatosi arina da, eta baliozkotzat joko nuke, besterik gabe.
b) Esteatosi moderatua da, eta emailea bere osotasunean baloratu beharko litzateke baliozkotasuna emateko.
c) Esteatosi larria da eta ez luke baliorik izan behar.
d) Esteatosi makrobesikularrak ez luke inoiz organoaren inplantea kontraindikatuko.

345.- Farmako hauetako zein EZ da organo-transplanteetan erabiltzen den immunoezabatzaile bat?

a) Ziklosporina.
b) Takrolimusa.
c) Mofetilo mikofenolatoa.
d) Atorbastatinak.

346.- Zer pankreaseko transplante mota egin daitezke?

a) Pankrea bakartua.
b) Pankrea eta giltzurruna aldi berean.
c) Pankrea-irlen transplanteak.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

347.- Gibeleko transplantean errefusa zelular akutua prebenitzeari eta tratatzeari dagokionez, hauetako zein EZ da funtsezko estrategia bat?

a) Immunoezabatze-mailak tarte onetan mantentzea.
b) Lehen hilabeteetan immunoezabatze-mailak baxu mantentzea, toxikotasuna eta errefusa saihesteko.
c) Kortikoide bidezko tratamenduan hastea, elkarren segidako egunetan banatutako bolo gisa.
d) Antigorputz monoklonalen erabilera (Ac. Monoklonalak) alternatiba bat da errefusa zelular akutu kortikorresistentea tratatzeko.

348.- 32 urteko emakume bat kontsultara etorri da 1,5 cm-ko tiroideko nodulu bat duelako. Nodulu hori EU-TIRADS 4 gisa sailkatuta dago ekografiagatik, eta Bethesda IV gisa zitologiagatik, zeina orratz fin batekin egindako ziztada/aspirazioaren (PAAF) bidez egin den. Ekografia zerbikalak ez du beste aurkikuntza interesgarririk deskribatzen. Zure ustez zein izango litzateke jokabiderik egokiena paziente honentzat?

a) Ezaugarri onberak dituen nodulu bat denez, jarraipen ekografikoa egitea proposatuko nuke.
b) Zalantza diagnostikoak aurkeztean, bigarren PAAF bat egingo nioke.
c) Hemitiroidektomia bidezko tratamendu kirurgikoa proposatuko nuke.
d) Tiroidektomia osoa duen tratamendu kirugikoa proposatuko nuke.

349.- 4,2 cm-ko tiroideko nodulua duen paziente bati hemitiroidektomia egin ondoren, patologoaren behin betiko txosten hau jaso da: "Patroi folikularra, inbasio kapsular eta baskularrarekin". Hautatu zure ustez EGOKIENA den jokabidea:

a) Kartzinoma folikularra da, eta, kasu horretan, 6 hilean behingo zaintza proposatuko nioke, tiroglobulina-mailekin.
b) Kartzinoma folikularra da, eta kasu horretan tiroidektomia osatuko nuke, eta, horretarako, linfadenektomia zentral profilaktikoa gehituko nioke tratamenduari.
c) Kartzinoma folikularra da, eta kasu horretan tiroidektomia osatuko nuke.
d) Kartzinoma folikularra da, eta, kasu horretan, hasieran I131 ematea proposatuko nuke, tiroidektomia osatu gabe.

350.- Tiroideko muineko kartzinomaren (TMK) diagnostikoari dagokionez, zein da OKERRA?

a) Oro har, ez da onartzen kaltzitonina zehaztea edozein tiroideko noduluaren aurrean, noizbehinkako TMKren baheketa gisa.
b) Orratz fin batekin egindako ziztada/aspirazioa (PAAF) eginez gero, TMK kasuen % 75-80 identifika daitezke.
c) Ustez noizbehinkakoak diren TMKen % 1 eta 7 artean familiarrak dira, eta, beraz, beti egin behar da azterketa genetiko bat familia-jatorria baztertzeko.
d) Antigeno kartzinoenbrionarioak (CEA) jarraipenerako ezarritako erabilgarritasuna du, nahiz eta ez izan espezifikotasun diagnostikorik TMKrako.

351.- Neoplasia Endokrino Anizkoitzaren (NEA) sindromeko 1 motako tumore neuroendokrinoei dagokienez, hautatu aukera ZUZENA:

a) Intsulinoma da pankreako tumore neuroendokrino ohikoena.
b) Funtzionatzen ez duten pankreako tumore neuroendokrinoei ebakuntza egin ohi zaie >1 cm-ko tamaina hartzen dutenean.
c) Pankrea-gorputz eta -isatsean tumore anizkoitzak baditu eta buruan tumore bat badu, hasieratik erabateko pankreatektomia proposatuko litzateke.
d) Timoko tumore kartzinoideak ezohikoak dira, baina oldarkorrak.

352.- Hiperparatiroidismo primarioaren diagnostikoari eta tratamenduari dagokienez, zein da GEZURRA?

a) Hiperparatiroidismo primarioaren diagnostikoa biokimikoa da.
b) Hiperparatiroidismoari ez bazaio kokapena aurkitu, ez du indikazio kirurgikorik.
c) Giltzurrunetako ekografia eta hezur-dentsitometria egin behar dira, giltzurrunetan edota hezurretan erasanik ez izateko.
d) Indikazio kirurgikoa antzekoa da noizbehinkako eta familiako kasuetan.

353.- Paratiroideko kartzinoma. Baieztapen hauetako zein da OKERRA?

a) Berdin erasaten die gizonei eta emakumeei, batez ere 70 urtetik gorakoei.
b) Hasieran, hiperkaltzemia handiarekin eta PTHren maila handiekin agertzen da.

c) Orratz fin batekin egindako ziztada/aspirazioa (PAAF) baliagarria da diagnostikoa egiteko.
d) Sendatzeko aukera bakarra hasieran kirurgia erradikala egitea da, kartzinoma osorik eta blokean erauzteko, infiltratuta egon daitezkeen ondoko egiturekin batera.

354.- Zure ustez zein da OKERRA, giltzurrun gaineko kartzinomari dagokionez?

a) Kasuen % 60an hipersekrezio hormonala dago, eta pazienteak duen klinika hipersekrezio horrekin lotuta dago; Cushing-en sindromea da ohikoena.
b) Ordenagailuez lagundutako tomografian edo, fase arterialari dagokionez, % 40 baino gutxiagoko kontraste-garbiketan, Hounsfield-en 10 unitatetik beherako ehunen indargabetze-balioek gaiztoa dela iradokitzen dute.
c) Orratz fin batekin egindako ziztada/aspirazioa (PAAF) ez da egokia tratamendu kirurgikoa egiten zaien pazienteentzat, eta baliagarria da tratamendu ez-kirurgiko bat hasi behar den tumore erauzgaitzen kasuetan.
d) Weiss-en irizpide histologikoak kartzinoma adrenokortikala diagnostikatzeko erabili ohi dira, eta Lin-Weiss-Bisceglia-renak, tumore onkozitikoetarako.

355.- Giltzurrun gaineko tumoreen tratamendu kirurgikoari dagokionez, zein da OKERRA?

a) Metastasi adrenalak segurtasunez erauz daitezke heltze laparoskopikoaren bidez.
b) Giltzurrun gaineko mielolipomaren tratamendu kirurgikoa egokia izango litzateke, 4 cm-tik gorako tamaina badu.
c) Adrenalektomia partziala izanez gero, kirurgian pentsa daiteke 3 cm baino gutxiagoko lesio onberetan, batez ere aldebikoetakoetan, eta guruinaren % 30 gordetzen da.
d) Feokromozitomaren kasuan, kirurgian zehar ezegonkortasun hemodinamiko izateko arrisku-faktore dira lesioaren tamaina eta metanefrinen ebakuntza aurreko mailak.

356.- Bilitec-ari dagokionez, baieztapen guztiak zuzenak dira, SALBU ETA:

a) Errefluxu duodenogastroesofagikoa baloratzeko aukera ematen du.
b) Bilirrubina errefluxu duodenogastroesofagikoa egotearen markatzaile ona da.
c) Emaitzak behar bezala ebaluatzeko, miaketa-zunda hestegorriko beheko esfinterraren goiko ertzetik 10 cm gorago jarri behar da.
d) Bilitec-aren indikazioak murriztu egin dira, besteak beste, hainbat teknikengatik, hala nola kanal anitzeko aluminio barneko pH-inpedantziometria.

357.- Desnutrizioaren etiopatogeniari buruzko ASPEN eta ESPEN eguneratzeen arabera, nola sailkatzen da espezifikoki hanturarik gabeko barau kronikoa ezaugarri duen desnutrizioa?

a) Gaixotasun kronikoarekin lotutako desnutrizioa.
b) Lesio edo gaixotasun akutuarekin lotutako desnutrizioa.
c) Ospitaleko desnutrizio mistoa, ultraakutua ezartzekoa.



d) Inanizioarekin lotutako desnutrizioa (nerbio-anorexian bezala).

358.- Ebakuntza Batzordeko berezko kideei dagokienez, Zein da erantzun OKERRA?

a) Zentroko anestesiako eta kirurgiako arduradunak dira.
b) Ebakuntza-gelako erizaintzako arduraduna da.
c) Zerbitzu kirurgikoko buru guztiak.
d) Zentroko zuzendaritza.

359.- Irizpide hauetako zein da pazienteak hautatzeko irizpidea KHAUnitate baterako, Davis-en sailkapenaren arabera?

a) I. eta II. motak.
b) II. mota.
c) IV. mota.
d) II. mota eta III. motako batzuk.

360.- Shocka eragiten duten egoera hauetako zeinetan EZ da mekanismo nagusia bihotz-gastuaren murrizketa?

a) Odol-itzuleraren murrizketan.
b) Bihotzeko “ponpak” huts egitea, uzkurkortasunaren alteraziogatik edo arritmia larriagatik.
c) Buxadura fluxu zirkulatorioan.
d) Tonu basomotorra galtzea.

361.- Hauetako bat EZ da shockaren banaketa-motako kausa:

a) Sepsia.
b) Anafilaxia.
c) Muineko lesio larria.
d) Tentsioagatiko pneumotoraxa.

362.- Fluidoterapia egoera berezietan. Zein EZ da egia?

a) Kristaloide isotoniko orekatuak lehenesten dira politraumatismoetan.
b) Politraumatismoetan Ringer Laktatoa lehenesten da.
c) Shock septikoa 30 ml/kg-ko krstaloideekin berpiztu behar da diagnostikoa egin eta lehen 3 orduetan.
d) Parkland Formulari jarraitu behar da erredura handietan, fluidoterapia eskakizunak betetzeko.

363.- Nahasmendu hidroelektrolitikoei dagokienez, esaldi hauetako zein EZ da ZUZENA?

a) Ospitaleratutako pazienteetan hiperpotasemia ohikoagoa da hipopotasemia baino.
b) Hipokaltzemiaren intzidentzia paziente kritikoengan edo ebakuntzaondoko pazienteengan % 80ra irits daiteke.
c) Hiperfosfatemia giltzurruneko gutxiegitasun kronikoarekin edo lisi zelular masiboaren kasuekin lotzen da.
d) 120 mEq/L-tik beherako kontzentrazioak hiponatremia larritzat jotzen dira.

364.- Konplexutasun handiko kirurgian ASA (American Society of Anestesiologist) maila desberdinetarako gomendatutako proben artean, baieztapen hauetako zein EZ da ZUZENA?

a) ASA I pazienteetan beti: hemograma, EKG eta koagulazioa.
b) ASA II pazienteetan, ohikoa ez den koagulazioa.
c) ASA II pazienteetan: beti EKG, hemograma eta giltzurrun-funtzioaren probak.
d) ASA III/IV pazienteetan: koagulazioa hepatopatia kronikoa bada.

365.- Diabetes Mellitusa duten eta ebakuntza aurreko determinazioan nahikoa ebidentzia EZ duten pazienteei dagokienez:

a) Bihotzeko patologia baztertu behar da.
b) Giltzurruneko patologia baztertu behar da.
c) Hemoglobina glukosilatua zehaztu behar da.
d) Arnasbide zaila dute eboluzio luzeko diabetesa duten pazienteek.

366.- Patient Blood Management (PBM) estrategia multzo bat da. Zein da erantzun ZUZENA?

a) Hemoglobina optimizatzea.
b) Odoljarioa minimizatzea.
c) Pazientearen optimizazioa eta anemiarekiko tolerantzia fisiologikoa.
d) Aurreko guztiak.

367.- Gaur egun, odoljarioa prebenitzeko teknika anestesiko hauetako zein jotzen da eztabaidagarritzat?

a) Teknika neuroaxialak, zeinak lotuta dauden arteria-presioa gutxitzearen ondoriozko anestesia orokorrarekin zein blokeo sinpatikoaren ondoriozko zain-tonuarekin.
b) Pazienteak duen gorputz-jarrera, kaba benako hiperpresioa saihesteko.
c) Hipotermia, azidosia eta hipokaltzemia saihestea.
d) Eragindako hipotentsioa.

368.- Nutrizio parenteral osoaren konplikazioei dagokienez, zein da erantzun ZUZENA?

a) Konplikazio mekanikoak dira, kateter zentrala txertatu eta mantentzeari lotutakoak.
b) Konplikazio septikoak dira, kateter zentralaren infekzioagatik.
c) Konplikazio metabolikoak dira.
d) Aurreko guztiak.

369.- Glutaminari dagokionez, zer EZ da ZUZENA?

a) Muskuluan duen kontzentrazioa kontzentrazio osoaren % 95ekoa da.
b) Funtsezko aminoazidoa da.
c) Beharrezkoa da erantzun inflamatorioa modulatzeko.
d) Beharrezkoa da oxidazio-estresa modulatzeko.

370.- Ebakuntza ondoko min akutuaren tratamenduari dagokionez, zein EZ da ebidentzia handiko gomendioa?

a) Analgesia multimodala erabiltzea.
b) Teknika erregionalak erabiltzea.
c) AIEEak edota parazetamola erabiltzea tratamendu multimodalaren parte gisa.
d) Opioideekin egiten den tratamenduan, nahiago da zain barnetik ematea, ahotik hartzea baino.

371.- Ebakuntza ondoko min akutuaren tratamenduari dagokionez, zein EZ da ZUZENA?

a) Eraginkorra da ebakuntza osteko konplikazioak gutxitzeko, esate baterako pneumonia, sakoneko zainetako tronbosia eta infekzioa.
b) Ez dute eraginik minbizia duten paziente kirurgikoen pronostiko onkologikoan.
c) Baliagarriak dira min kronikoko koadroak agertzea saihesteko.
d) Suspertze funtzionala bultzatzen dute.

372.- Zer EZ da ZUZENA zauriak orbaintzearen biologiari dagokionez?

a) Fetuek larruazala senda dezakete orbainik utzi gabe.
b) T zelulak proinflamatorioak dira, eta T helperrak ezabatzaileak.
c) Infekzioa, erredurak eta gehiegizko tentsioa keloideekin lotzen dira.
d) Keloideak konponketa-prozesuaren berezko alterazioekin lotzen dira.

373.- Orbaintze normaleko faseei dagokienez, zer EZ da ZUZENA honako baieztapen hauetan?

a) Klasikoki, zaurien sendaketa hiru fasetan banatu da: inflamazioa, ugalketa eta birmoldaketa.
b) Inflamazio-fasea zauria sortzen duen eraspotik hasi eta bigarren asteraino zabaltzen da.

c) Hemostasia da sendatze-prozesurako hasierako eta funtsezko urratsa.
d) XIII faktorearen defizita orbaintzea-alterazioekin lotzen da.

374.- Minimoki Inbaditzailea den Kirurgiaren (MIK) erantzun biologikoari dagokionez, baieztapen hauetako zein EZ da ZUZENA?

a) Fase akutuko erreaktanteen handitzea beti zauri kirurgikoan kokatzen da, eta, b erantzuna hobetzen du.

b) Ez dago desberdintasun handirik prozedura irekien eta MIKen artean, horien erantzun metabolikoari dagokionez.
c) MIK kirurgia irekia baino immunoezabatze txikiagoarekin lotzen da.
d) Erantzun neuroendokrinoa askoz txikiagoa da MIKn kirurgia irekian baino.

375.- Minimoki Inbaditzailea den Kirurgiari (MIK) dagokionez, baieztapen hauetako zein da GEZURRA?

a) Azterketek kirurgia robotikoaren hobekuntzak erakusten dituzte espazio txikietako prozedura konplexuetan.
b) Ezegonkortasun hemodinamikoa da MIK erabiltzeko erabateko kontraindikazio bakarra.
c) Hernia iratoa edo 15 cm-tik gorako hernia-akatsak kontraindikazio absolutuak dira MIKrako.
d) Tamaina handiko kanporatutako tumoreak, zeinak infiltrazio lokala duten, kontraindikazio erlatiboa dira MIKrako.

376.- Hauetako zein dira ihes anastomotikorako arrisku-faktore kirurgiko edo ebakuntzabarnekoak?

a) Kirurgiaren iraupena.
b) Odol-transfusioa.
c) Peritonitisa, oklusioa.
d) Aurreko guztiak.

377.- Zein da GEZURRA ihes anastomotikoaren ebakuntza inguruko diagnostikoari dagokionez?

a) Ihes anastomotikoaren markatzaile hematiko gisa proposatu dira honako hauek: Proteina C-erreaktiboa, prokalzitonina eta neutrofiloak.
b) Prokalzitonina markatzaile sentikorra da eta bakterio-infekzio sistemikoaren oso espezifikoa.
c) Ihes anastomotikoaren balio diagnostiko gisa aztertzen da bakterio gramnegatiboen, E.Coliren, Klebsiellaren eta Pseudomonen kanpoko paretako lipopolisakaridoak peritoneo-likidoan detektatzea.
d) Kirurgia kolorrektaleko kirurgian, proteina C-erreaktiboa ihes-markatzaile erabilgarria da ebakuntzaondoko bosgarren egunetik aurrera.



378.- Kokapen kirurgikoko infekzioa prebenitzeko gomendioei dagokienez, zein da ZUZENA baieztapen hauetatik?

a) Normalean, eremu kirurgikotik ilea kendu ohi da.
b) Ebakuntza inguruko immunonutrizioa gomendatzen zaie minbizia eta desnutrizio larria duten pazienteei, baldin eta kirurgia handia egingo bazaie.
c) Kirurgia handiaren aurretik, terapia immunoezabatzaile sistemikoa kentzea gomendatzen da.
d) Ez da gomendatzen profilaxi antibiotikoa ahotik hartzea, kirurgia kolorrektalari lotuta kolona mekanikoki prestatzean.

379.- Honako baieztapen hauetako zein da OKERRA?

a) Kokapen kirurgikoko infekzioa infekzio nosokomial ohikoena da gure herrialdean.
b) Abdomeneko kirurgiaren espezialitateak ditu kokapen kirurgikoko infekzioaren zifra altuenak.
c) Kokapen kirurgikoko infekzioak hilkortasuna bikoizten du hura garatzen ez duten pazienteekin alderatuta.
d) Kokapen kirurgikoko infekzioak 3 eta 9 egun artean luzatzen du ospitaleko egonaldia.

380.- Organo-espazioaren infekzioari dagokienez, baieztapen hauetako zein da GEZURRA?

a) Badirudi takikardiak eta takipneak eutsi egiten dietela ebakuntzaondoko faseko kontrarregulazio-mekanismoei, eta konplikazioaren hasierako garapenean agertzen direla.
b) Sarbide laparoskopikoak inflamazio-parametroak gutxiago handitzea dakar.
c) Ordenagailu bidezko tomografia da organo-espazioaren infekzioaren diagnostikoko teknika lehenetsia.

381.- Zain barneko kateterraren infekzioari buruzko baieztapen hauetako zein da GEZURRA?

a) Kateter infekzioak infekzio nosokomial ohikoenen artean daude.
b) Intzidentzia handiena zainketa intentsiboetako unitateetan edo onko-hematologiako zerbitzuetan gertatzen da.
c) Etiologiarik ohikoena bazilo gramnegatiboak dira.
d) Kateterraren infekzioaren susmoa izan behar da sukarra, hotzikarak eta hipotentsioa eta kateterraren sarbidetik edo ibilbidetik gertu dauden inflamazio-zeinuak dituzten pazienteengan.

382.- Paziente politraumatizatuaren azterketa primarioan, baieztapen hauetako zein da GEZURRA?

a) Arnasbidearen buxadura da berehalako heriotzaren arrazoirik ohikoena, traumatismoaren ondoren.
b) Zalantzarik izanez gero, pazientea garaiz intubatu behar da.



c) Toraxaren erradiografia normala bada, intubazioa segurua da eta ez da beharrezkoa berriz maiz ebaluatzea.
d) Hipotentsioak hilkortasuna areagotu dezake garuneko lesioa duten pazienteengan, eta hori ohikoa da trauma itxian.

383.- Politraumatizatuen intubazio orotrakealaren indikazioei dagokienez, zein da GEZURRA?

a) Paziente urduri edo oldakorra, tratamendu egokia eman ezin zaiona.
b) Arnasbidearen iragazkortasuna mehatxatzen duten aurpegiko edo lepoko zauriak (itxiak edo sarkorrak).
c) Askotariko lesio larriak, batez ere adineko pazienteetan.
d) 5Etik beherako Glasgowren koma-eskala.

384.- Paziente politraumatizatuen tratamendu kirugikoaren lehentasunei dagokienez, zein da baieztapen ZUZENA?

a) Odoljarioa kontrolatu behar zaien pazienteak, hemodinamikoki ezegonkorrak direnak.
b) Hemodinamikoki egonkorrak diren pazienteak, gorputz-adarreko lesioak eta bizi-mehatxuak dituztenak.
c) Traumatismo kraneoentzefaliko itxia, hematoma hedakorrarekin eta garuneko lesio luzerik gabe.
d) Aurreko guztiak.

385.- Prozedura hauetako zeinean sailkatzen da ebakuntzaondoko mina larritzat?

a) Tiroidektomian.
b) Izterreko herniorrafia.
c) Uzkiko kirurgia.
d) Laparoskopio bidezko kolezistektomia.

386.- Zein da aldirik seguruena haurdun dagoen emakume batek laparoskopia erabiltzeko?

a) Lehen hiruhilekoa.
b) Hirugarren hiruhilekoa.
c) Bigarren hiruhilekoa.
d) Lehen eta hirugarren hiruhilekoak.

387.- Neurri hauetako zeinek ahalbidetzen du sarbideetan metastasia ez ezartzea, kirurgia laparoskopiko onkologikoan?

a) Trokarrak finkatzeak.
b) Trokarretako zuloetatik gasak ez ihes egitea prebenitzeak.
c) Tresnak pobidona iododunarekin garbitzeak.
d) Horiek denak.

388.- Zein antibiotiko ez genuke lehen aukera gisara erabiliko, bazilo gram negatiboek eragindako infekzioaren profilaxian? (Pazienteak ez du alergiarik).

a) Aminoglukosidoak.
b) Amoxizilina-klabulanikoa.
c) Klindamizina.
d) Zefalosporina.

389.- Nutrizio parenteral periferikoa egoera hauetako zeinetan ez da agintzen?

a) Tarteko barauan (7-14 egun).
b) Aldi baterako tratamenduan, kateter zentrala kendu behar bada.
c) Eskakizunak betetzen ez dituen ahozko dieta duen pazientean (< % 60).
d) Ebakuntza aurreko desnutrizioa duen pazientean.

390.- Opiazeo hauetako zein jotzen da opiazeo handitzat, haren potentziaren arabera?

a) Meperidina.
b) Kodeinak.
c) Tramadola.
d) D-propoxifenoa.

391.- Zein bitaminak du rolik garrantzitsuena zaurien orbaintzean?

a) B6 bitaminak.
b) C bitaminak.
c) B1 bitaminak.
d) A bitaminak.

392.- Organo bat baino gehiago ematean, zein ordenatan ateratzen dira abdomeneko organoak (bihotza eta birikak atera ondoren)?

a) Giltzurrunak, gibela, pankrea, heste meharra.
b) Gibela, pankrea, heste meharra, giltzurrunak.
c) Pankrea, heste meharra, gibela, giltzurrunak.
d) Gibela, pankrea, giltzurrunak, heste meharra.

393.- Zer botika eten behar dira ebakuntza kirurgikoaren egunean?

a) Nitritoak.
b) AEBIak.
c) Beta blokeatzaileak.
d) Kaltzioantagonistak.

394.- Ioi hauetako zein ez da nabarmen murrizten berrelikadura-sindromean?

a) Potasioa.
b) Magnesioa.
c) Kaltzioa.
d) Fosfatoa.

395.- Beck-en triadan zeinu kliniko guzti hauek sartzen dira, SALBU ETA:

a) Hipotentsioa.
b) Zainetako jugularraren handitzea.
c) Larruazalpeko enfisema.
d) Bihotzeko murmurio itzaliak.

396.- Patologia hauetako zeinetan da hain ohikoagoa gibeleko errefusa kronikoa izatea, transplantearen ondoren?

a) Kolangitis esklerosante primarioan.
b) Zirrosi birikoan.
c) Hepatitis autoimmunean.
d) Behazun-zirrosi primarioan.

397.- Zer baieztapen EZ da EGIA pankreako transplantean?

a) Maskuriko pankrea-drainatze exokrinoa da ohikoena.
b) Maskuriko drainatzea bikarbonatoaren galera handiarekin lotzen da.
c) Maskuriko drainatzeari esker, amilasa-determinazioak egin daitezke gernuan, funtzio pankreatikoa baloratzeko.
d) Maskuriko drainatzeak maiz infekzio urologikoak eragiten ditu.

398.- Zein da transplantearen aurretik organoak gordetzeko gehien erabiltzen den soluzioa?

a) Eurocollins-en soluzioa.
b) Wisconsineko Unibertsitatearen soluzioa.
c) HTK soluzioa.
d) Zelsior soluzioa.

399.- Zein da seinale kirurgiko nagusia graves-basedow bidezko hipertiroidismoan?

a) Minbiziaren susmoa.
b) Tratamendu medikoaren porrota.
c) Neurri handiko goloa egotea.
d) Oftalmopatia larria.

400.- Zer baieztapen EZ da EGIA tiroideko kartzinoma folikularrari dagokionez?

a) Nodulu bakarti gisa aurkezten da kasu gehienetan.
b) Zerbikaletako gongoiletako metastasiak ez dira oso ohikoak.
c) Biriketako eta hezurretako kartzinoma papilarrak baino sarriagotan izaten ditu metastasiak.
d) Hürthle-ren zelulen kartzinoma folikularraren aldaerak pronostiko hobea du.

401.- Zer EZ da EGIA MEN 2b-ko tiroideen muineko kartzinoman?

a) Kartzinomaren debuta 2A MENean baino goizago izaten da.
b) Ia % 100ek metastasia du diagnostikoaren unean.
c) Kirurgia egokiena tiroidektomia totala egin eta konpartimentu zentrala hustea da.
d) Tiroidektomia profilaktikoa egiteko adinik egokiena 6 hilabete ingurukoa da.

402.- Kirurgiaren ondorengo hiperparatiroidismo iraunkorrean, zein baieztapen EZ da ZUZENA?

a) Lehenengo kirurgian identifikatu ez den adenoma baten ondorioz gertatzen da.
b) Guruin anitzeko gaixotasun batengatik da, zeinaren susmorik ez den izan.
c) Paratiroidektomia ez zen nahikoa izan.
d) Lau guruinak kendu bazituzten, adenoma IV. arku brankialari dagokio.

403.- Baieztapen hauetako zein ez da zuzena hiperparatiroidismo primarioko (HPTP) aldebiko miaketari dagokionez?

a) Guruin anitzeko gaixotasunaren susmopeko kasuetan gomendatzen da.
b) Gammagrafia negatiboa denean egin behar da.
c) HPTP hereditarioan bi aldeak aztertu behar dira.
d) Gaur egun, HPTP guztien % 15 inguruan egiten da.

404.- Zein baieztapen da ZUZENA MEN 2an?

a) Lehen kirurgia muineko kartzinomarena izan behar da beti.
b) Beti aldebiko suprarrenalektomia egiten da, nahiz eta kontrako aldeko tumorerik ez izan, ondorengo aldebiko-erasanaren arriskuagatik.
c) Aldebakarreko feokromozitoma erauzi ondoren, ez da oso gertagarria kontrako aldeko beste tumore bat garatzea.
d) Lehen kirurgia suprarrenalektomia izan behar da, feokromozitoma badago.

405.- Egoera hauetako zein ikusten da paratiroidektomia osteko hezur goseti larriaren sindromean?

a) Fosfatasa alkalinoaren mailak handitzea.
b) Hiperfosfatemia.
c) Kaltziuria handia.
d) PTHa balio normalen azpitik dago.

406.- Egoera hauetako zeinek betetzen ditu organo edo espazioaren infekzioaren irizpideak, kirurgia-prozedura bati lotuta?

a) Drainatze zornetsuak, ebakiaren larruazalera eta larruazalpeko zelula-ehunera mugatuta.
b) Ebaki sakona berez irekitzeak, sukarrarekin batera.
c) Kirurgian manipulatutako abdomen barneko barrunbe batean modu esterilean jasotako lagin batetik lortutako isolamendu mikrobiologikoak.
d) Eritema eta minak, azaleko zauri kirurgikoan.

407.- Zein da hestegorriko hausturaren kausarik OHIKOENA?

a) Kirurgikoa.
b) Instrumentala.
c) Kanpoko traumatismo sarkorra.
d) Gorputz arrotzaren buxadura.

408.- Zer EZ da EGIA Zenker-en dibertikuluan?

a) Benetako dibertikulua da.
b) Barito bidezko igarotzea da diagnostikoa egiteko proba lehenetsia.
c) Sintomarik goiztiarrena orofaringeko disfagia da.
d) Kirurgia irekia zein endoskopikoa jarrera terapeutiko baliagarriak dira.

409.- Prozedura hauetako zein sailkatuko litzateke behar bezala kirurgia garbi-kutsatu gisa?

a) Koloneko zulaketaren ondoriozko kirurgia, ezarritako peritonitisarekin.
b) Hautazko kolezistektomia, behazun-bidea modu kontrolatuan irekita eta infekziorik gabe.
c) Desbitalizatutako ehuna duen antzinako zauri traumatiko baten desbridamendua.
d) Istripuzko haustura baten ondoriozko heste-eduki askoko jariatzea duen kirurgia.

410.- Zer EZ da EGIA Barrett-en hestegorriko terapia medikoari edo kirurgikoari dagokionez?

a) Biek eraginkortasun berarekin kontrolatzen dute sintomatologia.
b) Kirurgia eraginkorrak errefluxu azido patologikoa zein behazun eta pankreakoa kontrolatuko lituzke.
c) Segmentu metaplasikoa desagertu egiten da kirurgiaren ondoren.
d) Segmentu metaplasikoak egoten jarraituko du tratamendu medikoarekin.

411.- Hestegorriko minbizian, estadio hauetako zein hartzen da erauzgarritzat?

a) T4b tumoreak, trakeako, gibeleko eta birikako erasanarekin.
b) T4a tumoreak, perikadrioko pleura edo diafragma infiltratzen dutenak.
c) Lotura gastroesofagikoko tumoreak, klabikula gaineko adenopatia positiboekin.

d) Hestegori zerbikaleko tumoreak< 5 cm muskulu krikofaringeoa.

412.- Clostridioides difficile bidezko infekzio larriaren hasierako tratamenduari dagokionez, hautatu baieztapen ZUZENA:

a) Ahozko metronidazola da lehen aukerako tratamendua.
b) 15.000/mm³ baino gutxiagoko leukozitoak eta 1,5 mg/dL baino gutxiagoko kreatinina ditu.
c) Ahoko bankomizina edo fidaxomizina gomendatutako aukera terapeutikoak dira.
d) Mikrobiota fekalaren transplantea da gomendatutako hasierako tratamendua.

413.- Noiz gomendatzen da gastroskopia kaustikoak hartu dituen paziente baten kasuan?

a) Lehen 6-12 orduetan, pazientea monitorizatuta dagoela.
b) Pazienteak abdomen akutua duenean.
c) 48 ordu baino gehiago igaro direnean.
d) Ezegonkortasun hemodinamikoa dagoenean.

414.- Duodenoko ultzera zulatuta duen paziente gazte baten kasuan, zein da jarrera kirurgikorik EGOKIENA?

a) Bagotomia tronkularra eta laparoskopia bidezko piloroplastia.
b) Bagotomia tronkularra eta antrektomia.
c) Epipoplastia laparoskopikoa.
d) Ultzera erauztea eta hautapenaz gaindiko bagotomia.

415.- Zein da gist gastrikoaren tratamendurik EGOKIENA?

a) Gastrektomia, 5 cm-ko segurtasun-ertzarekin.
b) Gastrektomia zabala eta gertuko linfadenektomia.
c) Gastrektomia osoa.
d) Erauzketa lokala ertz libreekin.

416.- Urdail-minbiziaren D2 linfadenektomiari dagokionez, zein da erantzun ZUZENA?

a) Biziraupena hobetzen du Ia estadioan.
b) Biziraupena hobetzen du IIIb estadioan.
c) Ez dio estadiajeari laguntzen.
d) IIIa estadioan errezidiba-arriskua murrizten du.



417.- Obesitate morbidoa, errefluxu gastroesofagikoa eta II motako diabetesa dituen paziente baten kasuan, zein da ebakuntza kirurgikorik egokiena?

a) Gastrektomia bertikal laparoskopikoa.
b) Laparoskopia bidez doitu daitekeen banda gastrikoa.
c) Scopinaroren behazun- eta pankrea-deribazioa.
d) Urdaileko bypass laparoskopikoa.

418.- Zein baieztapen da EGIAZKOA kirurgia bariatriko idealari buruz?

a) Pazienteen % 50i baino gehiagori egiten die mesede.
b) Galdutako gehiegizko pisuaren ehunekoa >% 25.
c) Lortutako amaierako GMI lodi morbidoetan <35.
d) < % 20 baino gaixotze-tasa handiagoa du.

419.- Egoera hauetako zein dagokio kutsatutako zauri kirurgiko bati?

a) Hautazko prozedura, errai hutsa ireki gabe eta inflamaziorik gabe.
b) Kutsadura esanguratsurik gabeko errai hutsa modu kontrolatuan irekitzea.
c) Kontrolatu gabeko heste-edukiaren jariatzea ebakuntzan zehar.
d) Eremu kirurgikoan zornea egotea prozedura hasi aurretik.

420.- Zein da erantzun ZUZENA kontraste hidrodisolbagarriaren ahorakinari dagokionez, bridagatiko heste meharraren buxaduran?

a) Buxaduraren amaiera iragartzen du.
b) Balio terapeutikoa du.
c) Koadroaren amaiera bizkortzen du.
d) Ez du ospitaleko egonaldia murrizten.

421.- Apendizearen kartzinoidean, eskuineko hemikotomia erabateko indikazioa da kasu hauetan, batean IZAN EZIK, zeinean indikazio erlatiboa den. Zeinetan?

a) 2 cm-tik gorako lesioetan.
b) Mesoapendizearen infiltratzearen ebidentzia histologikoan.
c) Muzina sortzen duten tumoreetan.
d) Goi-mailako kartzinoide gaiztoetan.

422.- Zer da EGIA heste meharreko adenokartzinomari dagokionez?

a) Maizago daude tarte distaletan.
b) Gutxitan ematen du metastasia.
c) Bilo-adenomak egotea arrisku-faktoretzat jotzen da.
d) Duodenoko 2. Zatiko adenokartziometan, ez da agintzen duodeno-pankreatektomia.

423.- Tiroideetatik bereizitako kartzinoman, hauetako zein faktorek EZ du eraginik biziraupenean?

a) Urrutiko metastasia egoteak.
b) 45 urte baino gehiago izateak.
c) Tumorearen tamainak.
d) Adenopatia zerbikal metastasikoak <45 urte.

424.- OMEren arabera, "Kirurgia seguruak bizitzak salbatzen ditu" programan, zer ehunekotan jotzen da kirurgiak eragindako kaltea saihesgarritzat?

a) % 20.
b) % 30.
c) % 40.
d) % 50.

425.- 9en erregelaren arabera, zer ehuneko da gainazaleko enborraren atzeko alde osoa eta goiko bi gorputz-adarren atzeko aldea erretzea?

a) % 18.
b) % 36.
c) % 27.
d) % 45.

426.- Zein da kolitis iskemikoaren kokapenik OHIKOENA?

a) Eskuineko kolona.
b) Zeharkako kolona eta barealdeko tolestura.
c) Beheranzko kolona edo sigmoideoa.
d) Ondestea.

427.- Polipo baten erauzketa endoskopikoaren ondoren, kirurgia agindu behar da kasu guztietan, SALBU ETA:

a) Ertz kirurgikoa 2 mm-koa denean.
b) Erauzketa EZ denean pieza batean izan.
c) Lesioa ez denean oso bereizia.
d) Erauzketa osatu gabe dagoenean.

428.- Aurkikuntza hauetako zeinek ez du berez uzten ebakiaren infekzio sakonaren diagnostikoa egiten?

a) Plano sakonetatik datorren drainatze zornetsua.
b) Abzesuaren ebidentzia berriz ebakuntza egitean.
c) 38° C-tik gorako sukarrari lotutako zauriaren dehiszentzia.
d) Ebakiaren dehiszentzia kultibo negatiboarekin eta horri lotutako zeinu klinikorik gabe.

429.- Kolitis ultzeraduna duten pazienteen zein ehunekok behar du kirurgia gaixotasunean zehar?

a) % 10.
b) % 20.
c) % 30.
d) % 40.

430.- Zenbatean behin egin beharko litzaioke kolonoskopia kolitis ultzeraduna eta kolangiti esklerosatzaile primarioa diagnostikatu zaion paziente bati?

a) Sei hilean behin.
b) Urtero.
c) 18 hilean behin.
d) Bi urtean behin.

431.- Zein da uzki inguruko hidrosadenitis zabalaren tratamendurik EGOKIENA?

a) Erauzketa zabala eta azal-mentua.
b) Erauzketa eta 2. asmo bidezko itxiera.
c) Krioterapia bidez ezabatzea.
d) Abzesuak kentzea.

432.- Kasu hauetako zeinetan EZ dago kontraindikatuta hemorroide-kirurgia?

a) Uzki-esfinterraren ihesean.
b) Ondesteko erasanean, hesteetako gaixotasun aktiboagatik.
c) Immunoeskasia larrian.
d) IV. mailako hemorroideetan, ultzerazio eta tronbosiarekin.

433.- Neurri hauetako zein lotzen zaio ebakuntza-eremuko infekzio-arriskua murrizteari?

a) Berriz ebakuntza egitea.
b) Presazko prozedura.
c) Kirurgia laparoskopikoa.
d) Ebakuntza inguruko hipotermia.

434.- Zer baieztapen da ZUZENA gibeleko hiperplasia nodular fokalari dagokionez?

a) Ez da adenoma bezain ohikoa.
b) Ahotik hartzeko antisorgailuak erabiltzean, horien intzidentzia handitu egiten da.
c) Gehienak askotarikoak dira.
d) EMNak adenomaren eta hiperplasia nodular fokalaren arteko diagnostiko diferentziala ahalbidetzen du.

435.- Gibeleko adenomei dagokienez, hautatu erantzun ZUZENA.

a) Oso gutxitan ditu 5 cm baino gehiago.
b) Hemorragia EZ da ohiko konplikazioa.
c) Antisorgailuak hartzea eten behar da.
d) Hasierako aukera terapeutikoa gibeleko transplantea da.

436.- Hepatokartzinomaren tratamenduari dagokionez, zein da erantzun ZUZENA?

a) 5 urterako biziraupen globala askoz handiagoa da gibeleko erauzketarekin transplantearekin baino.
b) Gaixotasunik gabeko biziraupena handiagoa da transplantatuetan erauzketa zian dutenetan baino.
c) Nodulu-kopuruak eta tamainak EZ dute eraginik transplantearen osteko errezidiban.
d) Hiloko ganglioiak egotea EZ da erabakigarria transplanterako.

437.- Faktore hauetako zein EZ zaio lotzen kolangiokartzinoma garatzeko arrisku handiagoari?

a) Kolangitis esklerosante primarioa.
b) Sortzetiko kisteak.
c) Behazun-parasitosia.
d) Crohn-en gaixotasuna.

438.- Ebakuntza osteko infekzioaren gutxi gorabeherako zein tasa espero daiteke, garbi-kutsatu gisa sailkatutako ebakuntza baterako?

a) % 1-3.
b) % 5-8.
c) % 20-25.
d) % 30-40.

439.- Kirurgiako profilaxi antibiotikoari buruzko baieztapen guzti hauek zuzenak dira, SALBU ETA:

a) Kirurgia garbi-kutsatuan edo kutsatuan gomendatzen da.
b) Ebakuntza aurreko dosi bakarra gomendatzen da, dosi maximoetan.
c) Profilaxi antibiotikoak ebakuntzaren lehen 24 orduak gainditu behar ditu.
d) Profilaxi antibiotikoa ebakuntzaren aurreko 30-60 minutuetan eman behar da.

440.- Pankreako minbizia erauzgaitza da egoera hauetan, SALBU ETA:

a) Goiko mesenterio-arteriaren infiltrazioa.
b) Kaba zainaren infiltrazioa.
c) Gibeleko metastasiak.
d) Porta zainaren infiltrazio partziala.

441.- Behazun-bideko zein kiste da OHIKOENA, Todani-ren eta Cols-en sailkapenaren arabera?

a) I: gibelaz kanpoko kiste bakartia.
b) II: duodeno gaineko dibertikulua.
c) III: duodeno barneko dibertikulua edo kodekozelea.
d) IV: gibel barneko eta gibelaz kanpoko dilatazio kistikoak.

442.- Zer da EGIA pankreako intsulinomari dagokionez?

a) Pankreako tumore endokrinoen maiztasunean, bigarrena da.
b) Whipple-ren triadak bere diagnostikoa iradokitzen du.
c) Egungo irudi-probekin, lokalizazio-diagnostikoa % 80 ingurukoa da.
d) Pankrea-isatsean kokatzen da normalean.

443.- Patologia hauetako zeinetan egiten da sarrien esplenektomia?

a) Anemia hemolitiko autoimmunean.
b) Esferozitosi hereditarioan.
c) Zelula faltziformeen anemian.
d) Estomatozitosi hereditarioan.

444.- Maskuriko protesia duen paziente batek prozedura kirurgikoarekin lotutako infekzio bat garatzen du ebakuntza egin eta bederatzi hilabetera. Adierazpen hauetako zein da ZUZENA?

a) Ezin da kirurgiarekin lotutakotzat jo, 30 egun baino gehiago igaro direlako.
b) Lehen 90 egunetan bakarrik jo daiteke kirurgiarekin lotutakotzat.
c) Inplante bat egoteak aukera ematen du zaintza diagnostikoaren aldia urtebetera arte luzatzeko.
d) Inplanteei lotutako infekzioak ez dira ebakuntza-eremuko infekzioak.

445.- Aldagai hauetako zeinek EZ du inplikazio pronostiko independenterik errezidiban eta ondesteko minbiziaren biziraupenean?

a) Mesondestearen kalitateak.
b) Tumorearen zulaketa iatrogenoak.
c) R estadioak.
d) Abordatze kirurgikorako bideak.

446.- Zein gomendio da egokia haurdunaldiko kirurgia laparoskopikoan, SAGES-en arabera?

a) 14 mm Hg-ko pneummoperitoneoko presioa.
b) Medikazio tokolitikoa erabiltzea, umetoki-dinamikarik gabe.
c) Beheko gorputz-adarren konpresio elastikoa erabiltzea saihestea.
d) Hasson motako abdomeneko sarbide irekia.

447.- Gibeleko zer segmentu hartzen da kokapen mesedegarrikotzat laparoskopia bidezko kirurgiarako?

a) VII.
b) IVb.
c) IVa.
d) I.

448.- Faktore-multzo hauetako zein lotzen zaio ebakuntza-eremuko infekzio-arrisku handiari?

a) Kirurgia laparoskopikoa, profilaxi antibiotikoa eta komorbilitate eza.
b) Adin handia, obesitatea, diabetes mellitusa eta tabakismoa.
c) Kirurgia laparoskopikoa eta hautazko prozedura.
d) Profilaxi antibiotikoa eta pazientearen prestakuntza egokia.

449.- Ezaugarri hauetako zeinek bereizten ditu zauri kirurgiko zikinak eta kutsatuak?

a) Errai hutsaren irekiera kontrolatua egoteak.
b) Ebakuntzan drainatzeak erabiltzeak.
c) Eremu kirurgikoan zornea edo infekzio-prozesu bat egoteak.
d) Teknika aseptikoaren haustura txikiagoak.

450.- Egoera hauetako zein sailkatu behar da ebakiaren azaleko infekzio gisa?

a) Abzesu lokalizatua zauriaren azpiko muskuluan.
b) Drainatze zornetsuak, soilik ebakiaren larruazaletik eta larruazalpeko zelula-ehunetik datorrena.
c) Abdomen barneko kolekzio batetik lortutako kultibo positiboa.
d) Faszia sakoneko infekzioaren diagnostiko erradiologikoa.

1. KASU PRAKTIKOA GALDERAK 451-455

451.- 45 urteko gizonezko paziente batek ez du aurrekari mediko eta kirurgiko interesgarririk. Larrialdi Zerbitzuek ekarri dute, trafiko-istripu bat izan duelako. Pazientea motozikleta baten gidaria zen, eta alboko traumatismo bat izan du auto bat ez delako STOP batean gelditu. Ezkerraldetik jo diote. Emergentzietako Zerbitzuek kontziente aurkitu dute, orientatuta, eta lau gorputz-adarrak mugitzen ditu. Konstanteen lehen balorazioan hauek ikusi dira: 115X'-ko BM, 95/65ko TA eta 16x'-ko AM. Oxigeno-saturazioa: % 92. Bi bide periferiko kateterizatu dira, eta 2 litroko gatz-serum fisiologikoa eta oxigenatua eman zaizkio maskara baten bidez. Ospitalera iristean, kontziente eta orientatuta jarraitzen du. BM: 105x'. TA: 85/60. AM: 18x'. Oxigeno-saturazioa: % 97. Lehen mailako ebaluazioa egin ondoren (zeinak arnasbide iragazkorra erakusten duen), ez du arnasa hartzeko zailtasunik eta ezegonkortasun hemodinamikoak bere horretan jarraitzen du. Une honetan, miaketa hauetako zeinetan EZ zenuke pentsatuko?

a) Torax, abdomen eta pelbiseko OT.
b) FAST ekografia.
c) Toraxeko X izpiak.
d) Pelbiseko X izpiak.

452.- Paziente horrek, lehen mailako ebaluazioa egin ondoren, 90/60ko TArekin eta 115x'-BMrekin jarraitzen du. Arnas-maiztasuna 19x-ra igo da "eta auskulatazioan ez da murmuriorik entzuten ezkerreko aldean. Toraxeko X izpiek ezkerreko hemoneumotoraxa erakusten dute, eta FAST ekografiak abdomenaren barneko likido librea dagoela. Premiazko gasometrian 8,4 g/dL-ko hemoglobina duela jakinarazi digute. Zein da aukerarik ZUZENENA?

a) Ezkerreko drainatze torazikoa eta OTra eramatea azterketa osatzeko.
b) Ezkerreko drainatze torazikoa eta peritoneoko ziztada xurgatua. Laparotomia edota torakotomia, aurkikuntzen arabera.
c) Premiazko laparotomia esploratzailea.
d) Ezkerreko drainatze torazikoa eta premiazko laparotomia.

453.- Pazientea egonkortu egin da drainatze torazikoarekin. 600 cc likido hematiko lortu dira. Transfusioa hasi da, eta gaur egun 95x'-ko BM, 105/80ko TA eta arnasketa hobearekin dago. Horrez gain, biriketako bi eremuak haizatzen ari dira dagoeneko. Zer egitea pentsatuko zenuke orain?

a) Toraxeko eta abdomeneko OT.
b) FAST ekografia, berriz ebaluatzeko.
c) Premiazko laparotomia egitea.
d) Garezurreko, zerbixeko, toraxeko, abdomeneko eta pelbiseko OT.

454.- Pazientea egonkor badago eta OTn bare-lesio bat agertzen bada, AASTren IV. mailakoa, adierazpen hauetako zein da EGIAZKOA?

a) Pazienteak premiazko esplenektomia egiteko indikazioa du.
b) Bare-lesioak bare-hiloari eragiten dio, eta parenkimaren % 45 inguru debaskularizatzen da.
c) Bare zatikatua edo lehertua.
d) Enbolizazio profilaktikoa ez da kontuan hartzen, egonkor dagoelako.

455.- Pazientea ezegonkor dago. Ezin zaio egoera hemodinamikoa hobetu, eta ebakuntza-gelara eramaten da. Toraxeko drainatzean 500 cc inguru atera dira likido hematikotik, eta ez da likido gehiago ateratzen. Laparotomia esploratzaile bat egin zaio, eta, bertan honako hauek aurkitu zaizkio: 2L inguruko hemoperitoneoa, barea lehertuta, mesenterioko hainbat lesio (odoljario-estigmarekin) eta heste meharreko zenbait eremu kolpatuta. Erretroperitoneo ez-konkortua. Pelbisa hondar hematikoekin eta ageriko lesiorik gabe. Esplenektomia egin ondoren, pazienteak ezegonkor jarraitzen du, laktatoa handitzen ari zaio eta noradrenalina behar du. Hb egonkortuta dago. Zein jokabidetan pentsatuko zenuke?

a) Ezkerreko torakotomia.
b) Laparotomia itxi eta pazientea Bizkorketara/Zainketa Intentsiboetara bidaltzea, berpizten jarraitzeko.
c) Abdomena aldi baterako ixtea, packingarekin edo gabe, eta berpizten jarraitzea.
d) Larrialdiko laparotomia eta torakotomia ixtea, pazienteak ez badu hobera egiten.

2. KASU PRAKTIKOA GALDERAK 456-460

456.- 67 urteko gizonezko batek hipertentsio arterialaren aurrekariak ditu, zeina AEBI baten bidez kontrolatzen duen, eta duela 7 urte kolezistektomia egin zioten, kolelitiasi sistomatiko bat dela eta. Kontsultara etorri da anemia eta sindrome konstituzionala dituelako. 7 kg inguru galdu ditu 5 hilabetean. Hondar hematikoak eta melenak kanporatzea ukatzen du. Gastroskopia bat egin zaio, eta 2 cm inguruko lesio ultzeratua erakusten du, itxura neoplasikoa duen urdail-gorputz distalean. Anatomopatologia positiboa du heste-motako adenokartzinoma muzinosoarentzat. Zure medikuak luzapen-azterketa eskatu dizu, hainbat miaketarekin. Zein ez zenuke beharrezkotzat joko?

a) Torax, abdomen eta pelbiseko OT.
b) PET-OT 18 FDGrekin.
c) Ekoendoskopia.
d) Horiek guztiak ezinbestekoak dira.

457.- Miaketa osagarrien ondoren, cT2N+M0 adenokartzinoma gastriko gisa sailkatu da. Zein da tratamendu-eskemarik gomendagarriena gureak bezain egoera orokor ona duen paziente batentzat?

a) Zuzeneko kirurgia. Gastrektomia osoa D1+ linfadenektomiarekin eta ebakuntzaondoko kimioterapia baloratzea, anatomopatiologiaren arabera.
b) Kimio-erradioterapia neoadjubantea eta erantzuna baloratzea.
c) Ebakuntza inguruko kimioterapia, eta kirurgia baloratzea gaixotasunak aurrera egiten ez badu.
d) Zuzeneko kirurgia. Gastrektomia osoa D2 linfadenektomiarekin eta ebakuntzaondoko kimioterapia baloratzea, anatomopatiologiaren arabera.

458.- Pazienteari ebakuntza egiten zaionean, gastrektomia subtotala egiten da D2 linfadenektomiarekin. Gongoil-talde hauetako zein ez da erauziko?

a) 1. taldea.
b) 6. taldea.
c) 12a taldea.
d) 2. taldea.

459.- Kasu honi dagokionez, zein da baieztapen ZUZENA?

a) Ez da exeresi endoskopikotzat hartzen, T2 bat delako eta luzapen-azterketan ganglioiak dituelako.
b) D3 linfadenektomiak epe luzerako biziraupena areagotu dezake, eta T2 tumoreetan edo goragokoetan gomendatu behar da.
c) 11. taldeko linfadenektomiak ez du zentzurik gorputzeko tumore batean, ezta kurbadura handiagoko tumore batean ere.
d) Esplenektomia egitea pentsatzea, bare-hiloan adenopatiak izan ala ez.

460.- Kirurgia egiteko unean, peritoneoko kartzinomatosia ikusten da, 14ko HOBEarekin. Anatopatologiaren bidez baieztatzen da lesio garrantzitsuenak positiboak direla adenokartzinomarako. Zein da jokabiderik EGOKIENA?

a) Erauzketarekin jarraitu eta pazientea kimioterapia sistemikora bidaltzea.
b) Erresekzioarekin jarraitu eta kirurgia zitorreduzitzailea baloratzea HIPEC bidez.
c) Ez onartzea keinu kirurgikorik eta pazientea bidaltzea, kimioterapia sistemikoa duen tratamendu aringarria baloratzeko.
d) Erauzketarekin jarraitu eta ez onartzea tratamendu sistemikorik.

3. KASU PRAKTIKOA GALDERAK 461-465

461.- 47 urteko emakume paziente bat etorri da, bere lehen mailako arretako medikuak bidalita, lesio zerbikal bat agertu zaiolako. Miaketa fisikoan nodulu bat antzematen da, eskuineko tiroideko lobuluan. Ekografia bat egin zaio, 3 cm-ko TI-RADS 3 nodulua erakusten duena. Zein da zure jokabidea?

a) Tiroide-funtzioaren azterketa analitikoa eta behaketa. Ekografia berria 6 hilabeteetara.
b) Tiroide-funtzioaren azterketa analitikoa eta tiroidektomia agintzea, hipotirodismoa badago.
c) Gammagrafia bidezko azterketa eta nodulu hotza edo beroa baloratzea.
d) Tiroideko ekografia eta PAAF.

462.- Paziente bera Bethesda I izanik kontsultara etorriko balitz, zer adieraziko ligukete?

a) Biopsia onbera. Pazienteari behaketa eman dakioke.
b) Biopsia positiboa, muineko kartzinomarako.
c) Biopsia ez da nahikoa diagnostikoa egiteko. Errepikatu egin behar da.
d) Biopsia positiboa Hürtle-ren zeluletarako.

463.- Diziplina anitzeko batzordearen azterketa eta balorazioa osatu ondoren, ebakuntza-gelara eramaten da pazientea tiroidektomia osoa egiteko. Kirurgian, nerbio bagoaren eta nerbio laringeo atzerakoiaren neuromonitorizazioa egiten da. Kirurgiaren hasieran, seinale bat dago bi nerbio bagoetan eta bi atzerakoietan. Kirurgia amaitzean, seinalea dago bi atzerakoietan, baina bago batek seinalea galtzen du. Neuromonitorizazio-sistemaren akats teknikoa baztertu da. Zer esan nahi du horrek? Zer egin behar dugu?

a) Ezer ez, bi atzerakoiak ondo daude, pazienteari segurtasunez ken diezaiokegu hodia.
b) Ezer ez, bi atzerakoiak ondo daude. Pazienteak disfonia pixka bat izan dezake, baina ziur iragankorra izango dela, goiko laringeko nerbioaren lesio baten ondorio izan daitekeelako.
c) Baliteke nerbio atzerakoiaren lesioa egon izana bere alderik distalenean, laringerako sarreratik gertu. Anestesistari jakinarazi behar zaio hodia kentzean.
d) Nerbio laringeo atzerakoiean lesio bat egon daiteke nerbio bagoaren eta zati distalenaren artean. Anestesistari jakinarazi behar zaio hodia kentzean.

464.- Gure pazienteari erabateko tiroidektomia egin diote. Kirurgiak ez du intzidentziarik izan. Hurrengo egunean, bisita-pasean, pazienteak inurridura eta disestesia sentsazioa du hatzetan eta ezpainen inguruan. Chvostek-en eta Trusseau-ren probak positiboak dira. Analitika bat egiten badugu, zer determinazio egin beharko genituzke eta zer ikustea espero genuke?

a) Kaltzioa, PTH, proteinak edota albumina. PTH handitua. Kaltzio zuzendu baxua.
b) Kaltzioa eta TSH. Kaltzioa normal. TSH baxu.
c) Kaltzioa, PTH eta proteinak. PTH baxua. Kaltzio zuzendu baxua.
d) PTH bakarrik. Balio normala edo maila baxukoa.

465.- Gure pazientea ziztada batean Bethesda VI izan balitz, zein litzateke baieztapen ZUZENA?

a) Azterketa eko edota zerbikaletako OTrekin osatuko genukeen. 4,3 cm-ko lesioa baieztatzen badugu, lesio adenopatikorik gabe, tiroidektomia osoa proposa dezakegu, gongoiletako aldebiko hustuketa zentralarekin edo gabe.
b) Azterketa eko edota zerbikaletako OTrekin osatuko genukeen. 3 cm-ko lesioa baieztatzen badugu adenopatia laterozerbikalekin, nahikoa litzateke hemitiroidektomia eta erasandako aldea hustea.
c) Tirodektomia osoa egingo genukeen beste miaketarik gabe, eta behin betiko anatopatologiaren arabera, hustea edo iodo erradioaktiboa erabiltzea proposatuko litzateke.
d) Pazientea iodo erradioaktibora bidaliko genukeen.

466.- **33 urteko gizonezko paziente bat kontsultara etorri da disfagia progresiboa dela eta, baina disfagia horretan solidoak eta likidoak txandakatzen ditu hasieratik. Gastroskopia bidezko miaketa egin da, eta gaiztotasuna baztertzen da. Esofagograman, loro-moko gisako zorroztura bat ikusten da hestegorri distalean, dilatazio proximalarekin. Manometria bat egin da, zeinak erakusten dituen hestegorriko beheko esfinterraren erlaxazio osatugabea, hestegorri osoan peristalsirik ez dagoela eta irensketa espasmodunen >% 20. Zein da kasu honetan aukera terapeutikorik EGOKIENA?**

a) Hestegorriko beheko esfinterraren dilatazio endoskopikoa.
b) Toxina botulinikoaren injekzioa hestegorriko beheko esfinterrean.
c) Heller-en miotomia, errefluxuaren aurkako teknikari lotua.
d) Ahoko Miotomia Endoskopikoa (POEM).

467.- **45 urteko paziente bat abdomeneko masa bat eta ondoeza izaten hasten da. OTn 9 cm-ko tumorazioa ageri da urdail-gorputzean, zeinak pankrea, barea eta zeharkako kolona ukitzen duen. Endoskopia bidezko biopsiak hartu dira, zeinetan immunohistokimikak positibotasuna erakusten duen CD117 eta DOG1erako. Hautatu jarrerarik ZUZENENA:**

a) C-kit hartzailearen mutazioaren azterketa genetikoa osatzea, Tirosin-kinasaren inhibitzaileekin tratamendu neoadjubantea baloratzea eta indikazio kirurgikoa berriz ebaluatzea bilakaeraren arabera.
b) Zainketa aringarrietara bidali, tumore erauzkaitza delako.
c) Kirurgia zuzena, exeresi multiorganikoarekin.
d) Laparoskopia esploratzailea, kartzinomatosia baztertzeko eta ondoren FLOT ematea baloratzeko.

468.- **77 urteko gizonezko batek ez du gaixotasunik eta, oro har, oso egoera onean dago. Siewert-en III urdaileko adenokartzinoma diagnostikatzen zaio. Estadiajeko OTn adenopatia lokorerregionalak daude, eta zalantza dago ea kartzinomatosia ote dagoen. Zein izango litzateke jokabide terapeutikoa?**

a) Pazientearen adina dela eta, ez da ekintza terapeutiko sendagarririk egingo.
b) Laparoskopia esploratzailea, eta urruneko gaixotasunik ez badago, ebakuntza inguruko kimioterapia egitea eta FLOT ematea baloratzea, baldin eta kirurgia beraren ondoren, gaixotasunak aurrera egin ez badu eta pazientea egoera orokor onean badago.
c) Zuzeneko kirurgia eta kimioterapia adjubantea baloratzea.
d) Kimio-erradioterapia neoadjubanteak eta gero erantzuna baloratzea.

469.- Duela 3 urte ebakuntza egin zioten 45 urteko paziente bati, anastomosi baten bypass gastrikoa jartzeko. Larrialdietarako kontsultara etorri da bat-bateko abdomeneko mina, ondoez orokorra, izerditzea eta hipotentsioa dituelako. Galdeketan dio aurreko hilabeteetan epigastralgia gertakariren bat izan zuela. Gaixotasun dibertikularraren aurrekariak ere baditu. OTren lehen irudietan pneummoperitoneoa agertzen da. Zure ustez, zein da kausarik PROBABLEENA?

a) Dibertikulu-zulaketa.
b) Ahoko ultzera anastomotikoa.
c) Berezko heste-zulaketa.
d) Boerhaave.

470.- 66 urteko gizonezko paziente bat kontsultara joan da hematemesia dela eta. Azken asteetan AIEE hartzearen aurrekaria du, kirol-lesio baten ondorioz. 70/50Ko TA eta 120x'-ko BM ditu. Hemoglobina: 6 g/dl. Zure ustez, zein tratamendu da egokiena pazienteak EZ badie egonkortze hemodinamikoko lehen neurriei erantzuten?

a) Premiazko kirurgia.
b) Serumterapia, egonkortzea eta, ez badu erantzuten, arterien zeharreko enbolizazioa.
c) Endoskopia eta, aurkikuntzen arabera, kirurgia edo enbolizazioa behar duen baloratuko da.
d) Serumterapia, egonkortzea eta, ez badio erantzuten, arterien zeharreko enbolizazioa.

471.- 68 urteko paziente bat kontsultara etorri da digestio-hemorragia handiak dituelako. Egonkortu egiten dute eta endoskopia digestibo handia egiten zaio, zeinak Forrest 1b ultzera bat dagoela erakusten duen. Tratamendu endoskopikoa egiten da, eta eraginkorra da. Lehen 48 orduetan errezidiba eta ezegonkortasuna izan ditu. Guztira, 8 hematie-kontzentraturen transfusioa egin zaio. Adierazi aukera terapeutikorik EGOKIENA:

a) Premiazko kirurgiaren indikazioa du.
b) Endoskopia berria.
c) Arterien zeharreko enbolizazioa.
d) Kirurgia, baldin eta enbolizazioak porrot egiten badu.

472.- 77 urteko gizon batek ezkerreko kolektomiaren aurrekariak ditu, duela 15 urte koloneko minbizia izan zuelako. M3W3 erdiko lerroaren ebentrazioa. Zure ustez, hauetako zein EZ da beharrezko keinua ebentrazio horren hautazko tratamenduan?

a) Nutrizio-optimizazioa eta pisu-galera, gorputz-masaren indizea 30kg/m2 baino handiagoa bada.
b) Erretzailea bada, tabakoaren abstinentzia.
c) Arnas funtzioaren probak.
d) Denak dira beharrezkoak.



473.- 75 urteko emakume bat larrialdietako kontsultara etorri da, 4 ordu doalako bat-batean hasitako abdomeneko minarekin, distentsioekin eta elikadura-gorakoekin. Miaketan, abdomenean distentsioa eta tinpanismoa du. Ez du aurretiazko abdomeneko kirurgiarik. Miaketa fisikoan ez da tumorerik eta herniarik ikusten. FABER maniobra positiboa da (howship-romberg-en zeinua). Adierazi susmo diagnostikoa:

a) Hernia obturatzailea.
b) Sortzetiko brida edo idiopatia.
c) Gastroenteritis akutua.
d) Kolitis pseudomenbranosoa.

474.- 33 urteko paziente batek bizikleta-istripua izan du mendate batean behera zihoala. Konortea galdu du sorosleak etortzean, baina gero berreskuratu egin du, eta 10eko Glasgowarekin mantentzen da. Hasieran, 110/55ko TA eta 99x'-ko BM du, baina ondoren 90/45ko TA eta 120x'-ko BM, 2000 cc-ko bolumena eman arren. Zein da erantzun ZUZENA?

a) Iristen denean, garezurreko, zerbixeko, toraxeko, abdomeneko eta pelbiseko OT egin behar zaio.
b) Iristen denean berriz ebaluatzea eta, ezegonkor jarraitzen badu, toraxeko erradiografia eta FAST ekografia egitea.
c) Paziente honen kasuan, peritoneo-garbiketako ziztadak ez du inolako indikaziorik.
d) Shock neurogenoa da, eta, beraz, garezurreko OT egin eta emaitza jasotzea itxaron behar da.

475.- 77 urteko paziente bat kontsultara etorri da hesteetako buxadura-koadro bat duelako, zeinak ez duen kirurgiarik edo aurretiazko prozedurarik. Abdomeneko OTn buxadura ikusten da heste mehar distalean, lesio trinko baten ondorioz, baita aerobilia bat ere. Zein da zure susmo klinikoa?

a) Gilrbert-en sindromea.
b) Rigler-en sindromea.
c) Sortzetiko brida.
d) Bouveret-en sindromea.

476.- 65 urteko gizonezko batek ez du aurrekari interesgarririk, eta ospitaleratu egin dute kolezistitisa eta horri lotutako koledokolitiasia duelako. Atzeranzko Kolangiopankreatografia Endoskopikoa (AKE) agintzen da, kalkuluak ateratzeko, eta, prozesu horretan muki-estrusioa bistaratzen da, ahitik. Erantzun hauetako zein EZ da ZUZENA?

a) Diagnostikorik probableena neoplasia kistiko muzinosoa da, eta pankreako EMN bat egitea gomendatzen da.
b) Diagnostikorik probableena hodi barneko neoplasia muzinosoa da, eta pankreako EMN bat egitea gomendatzen da.
c) Ahal dela, buruan eta prozesu unzinatuan dago.
d) Ikterizia edo 5 mm-tik gorako osagai solido bat badu, erauzi egin behar da.

477.- **50 urteko gizonezko bat kontsultara etorri da azken hilabeteetan 5 kg baino gehiago galdu dituelako, ageriko arrazoirik gabeko asteniarekin eta noizbehinkako beherakoekin batera. Ekografia bat egin zaio, Wirsung-en hodiaren dilatazioa bakarrik erakusten duena, lotutako lesiorik gabe eta pankreatitisaren daturik gabe. Analitikan, honako hauek nabarmendu dira: 125 U/L-ko CA 19.9, 250000 plaketa, 1,1 mg/dL-ko bilirrubina, 150 UI/L fosfatasa alkalino (FFAA) eta 80 U/L-ko GGT-a. Askotariko detektagailuko abdomeneko OT bat egiten da, pankrea-buruko 3 cm-ko lesio infiltratzaile hipodentso baten berri ematen duena, zeinak pankrea-hodi nagusiaren buxadura eta pankreako atrofia distala baldintzatzen dituen. Tumorazioak 180º-tik beherako ukipena du gibeleko arteria arruntarekin, enbor zeliakora hedatu gabe, eta goiko mesenterio zaina ukitzen du 180º-tik gora. Baieztapen hauetako zein EZ da ZUZENA?**

a) Diagnostikorik probableena pankrea erauzgarriaren adenokartzinoma da, eta gibelaz kanpoko gaixotasunik izan ezean, erauzketa-kirurgia litzateke lehen aukera.
b) Hasierako heltze gisa, ikusirik kirurgia bidezko tratamenduak huts egiteko probabilitate handia duela, terapia neoadjubanteaz balia daiteke.
c) Aldaera anatomiko arterialak egoteak konplikazio baskularrak izateko arriskua handitzen du, eta, beraz, garrantzitsua da ebakuntza aurreko azterketa bat egitea.
d) ECOG eta performance statusa kontu handiz ebaluatu behar dira, kirurgia-arriskua aurreikusteko.

478.- **35 urteko gizon bat larrialdietara joan da asteniaren koadro orokorra, goragalea, gorakoak eta abdomeneko mina dituelako, zeinak azken hilabetean astiro eta pixkanaka agertu diren. Miaketan, pazienteak azaleko eta mukosetako ikterizia arina, hepatomegalia mingarria eta aszitisa ditu. Analitikan, honako hauek nabarmentzen dura: bilirrubina (2,8 mg/dL) eta gibeleko profila 200 UI/L FFAArekin, 180 U/L-ko GGTarekin, % 60ko PIrekin eta 200.000 plaketa) Susmo diagnostikoaren aurrean, honako baieztapen hauetako zein EZ da ZUZENA?**

a) Beharrezkoa da faktore prokoagulatzaileak ebaluatzea, baita horiei lotutako gaixotasun sistemikoak ere (kolitis ultzeraduna eta gaixotasun zeliakoa).
b) Ezinbestekoa da ekografia, OT edo EMN egitea, susmoaren diagnostikoa baieztatzeko edota horri lotutako tumoreak bilatzeko.
c) Kasu gehienetan, antikoagulazioa kontraindikatuta dago.
d) Hobera egiten ez duten pazienteentzako tratamendu-aukerak hauek dira: TIPS, kirurgia-deribazioak eta gibeleko transplantea.

479.- **25 urteko emakume bat larrialdietara joan da koliko nefritikoarekin bateragarria den koadro bat duelako. Noizbehinka alkohola eta drogak kontsumitzen ditu eta ez du beste aurrekari interesgarririk. Analitikan 15000 leukozito baino ez dira nabarmentzen. Egiaztapen-ekografia egitean, erradiologoak 5-6 segmentuko gibeleko lesio solido bat identifikatu du, 3 cm-ko diametrokoa. Hauetako zein da ZUZENA?**

a) Ustekabez aurkitutako gibeleko tumore onbera solido gehienak hemangiomak dira, eta diagnostiko nahiko erraza dute irudi-teknikekin.

b) Hiperplasia nodular fokala (HNF) da gibeleko bigarren tumore onbera ohikoena, eta % 1 inguruko prebalentzia du.
c) Adenoma hepatozelularra gibeleko tumore onbera monoklonal bat da, erlatiboki oso ohikoa ez dena, eta ahozko antisorgailuak erabili izanaren historia luzea duten emakume gazteetan ikusi ohi da.
d) Guztiak zuzenak dira.

480.- 64 urteko gizonezko batek gaztetan asko edaten zuen. Gaur egun 15 g alkohol edaten ditu eguneko. 0 da bere performance estatusa. Larrialdietara joan da asteniagatik eta abdomeneko perimetroa bat-batean handitu zaiolako. Analitikan honako hauek agertu dira: 2.5 ng/dL bilirrubian, 80 U/L-ko ALT, 180 U/L-ko AST, 1.4ko kreatinina, 97 UI/L-ko FFA, 160 U/L-ko GGT, % 56ko PI eta 68000 plaketa. Ekografia bat egin da eta ekografia horrek baieztatu du aszitisa, hepatopatiaren datu argiak eta 5. segmentuan 3 cm-ko lesio bat daudela. Horren ondoren, OTA trifasiko bat egin da, zeinak 5. segmentuan 2,7 cm-ko 5 LIRADS 5 lesio baten berri ematen duen. Lesio hori arteria-fasean kontrastea atzematen duen eskuineko porta-adarraren okupazio bati lotuta dago. Hautatu erantzun ZUZENA:

a) Erauzketa-kirurgia baloratzeko, ezinbestekoa da komorbilitateen, bolumetria eta gibeleko funtzioaren testaren azterketa osatzea.
b) BCLC 2016ren arabera, C fasekoa da; tratamendu sendagarriak ez lirateke egokiak izango eta gomendagarriena kimioenbolizazioa (TACE) da.
c) Tumorea 3 cm baino txikiagoa denez, kirurgiaren antzeko emaitzak erakutsi dituen irrati-maiztasun bat proposa zitekeen.
d) Guztiak okerrak dira.

481.- **48 urteko emakume bati eskuineko tiroide-lobektomia bat eta istmektomia bat egin diote, ebakuntza aurreko 18 mm-ko nodulu bat duelako. Anatomia patologikoari buruzko behin betiko txostenak (parafinan) baieztatu duenez, tiroideko ahiko kartzinoma klasikoa du, 18 mm-koa (pT1b), erauzketa libreko ertzekin, baina tumore barneko inbasio baskular linfatiko zabala du, baita permeazio kapsularreko fokuak ere, tiroideaz kanpoko hedadura makroskopiko txikiarekin (pT3b), eta tiroidearen inguruko muskulaturari eragiten dio. Kontrako aldeko lobulua normala da. Paziente horren ebakuntzaondoko maneiuari dagokionez, adierazi zein den aukera zuzena:**

a) Erauzketa-ertz askeak (R0) bermatu direnez, nahikoa da aurretiazko lobektomia onkologikokioa, eta pazienteak zuzenean lebotiroxina duen tratamendu ezabatzailera igaro behar du.
b) Formalki gomendatuta dago berriz ebakuntza egitea, tiroidektomia oso bat egiteko. Izan ere, pronostiko txarreko faktoreak daude (tiroideaz kanpoko hedapena eta inbasio baskular zabala), errepikapen-arriskua areagotzen dutenak eta ondoren erradioiodo(^{131}I) bidezko tratamendu ablatiboa ematea justifikatzen dutenak.
c) Berehala eskatu behar da odol periferikoko RET genearen azterketa genetikoa; azterketa hori negatiboa bada, baztertu egiten da tiroidektomia osoa egiteko beharra.
d) Jokabide lehenetsia iodo erradioaktiboaren bidezko terapia zuzenean ematea da gelditzen den tiroideo-ehunaren gainean; horrela bigarren kirurgia bat saihestuko da, kontrako aldeko nerbio laringeo atzerakoiaen lesioa izateko arrisku handia dagoelako.

482.- 35 urteko emakume bat kontsultara etorri da 22 mm-ko tiroideko nodulu bat agertu zaiolako eskuineko lobuluan. Nodulu sendoa da, eta alde bereko IV mailako adenopatia ukigarriei loturik dago. Noduluaren PAAFek jakinarazten du tumore-zelula plasmozitoide eta fusiformeak ugaritu egin direla, Kongo gorriz positiboki tindatzen den zelula-material amorfoko metaketekin. Analitikak kaltzitonina seriko basalaren maila nabarmen handiak erakusten ditu (480 pg/mL). Patologia horretarako egungo jarraibideen arabera, adierazi zein den baieztapen ZUZENA:

a) Tiroideko muineko kartzinoma bat baieztatu denez, kirurgia lehenetsia eskuineko lobektomia eta hustuketa zentral profilaktiko batera mugatu behar da, eta tiroidektomia osoa atzeratu behar da, RET mutaziorik ez badago.

b) Tiroideko kirurgia programatu aurretik, nahitaezkoa da batera existitzen den feokromozitoma bat baztertzea, eta horretarako gernuan edo plasman metanefrinak zehaztea, baita hiperparatiroidismo primario bat ere, MEN 2 sindromearen (Neoplasia Endokrino Anizkoitza) susmoa badago.

c) Material amiloidearen aurkikuntza (Kongo gorrirako positiboa) tiroideko kartzinoma anaplasikoaren patognomonikoa da, eta, beraz, kirurgia sendagarria baztertuta dago hasieran, eta onkologia erradioterapikora bideratu behar da.

d) RET protoonkogenaren mutazio-analisia bakarrik tiroideko minbiziak eragindako heriotzaren familia-aurrekari zuzenak esplizituki aipatzen dituzten pazienteei eskatu behar zaizkie.

483.- 65 urteko emakume bat, zeinak ez duen aurrekari interesgarririk, larrialdi-zerbitzura joan da, bat-bateko aurreko zerbikaleko hazkundea duen koadro bat agertu zaiolako (4 aste baino gutxiagoko bilakaera du koadro horrek). Koadro horrek harriak bezalako gogortasuna du, plano sakonetarako finkoa da, disfoniari lotutakoa, eta arnasa hartzeko estridore arina du, baita solidoen disfagia progresiboa ere. Zerbikaletako ordenagailuz lagundutako tomografiak (OT) 75 mm-ko aldebiko tiroide-masa bat erakusten du, tiroide inguruko muskulatura inbaditzen duena, haurren kartilagoa infiltratzen duena eta eskuineko arteria karotida arrunta 180° baino gehiagora biltzen duena, eta horren ondorioz, aldebiko tumore-adenopatia masiboak elkartzen dira. Premiazko orratz lodiko biopsia bat egiten da (OLB), tiroideko kartzinoma anaplasikoaren (TKA) diagnostikoa baieztatzeko. Diziplina anitzeko batzordeak berehala eskatu du sekuentziazio masibo (NGS) bidezko biomarkatzaileen azterketa molekularra. Paziente horren estrategia terapeutikoari dagokionez, egungo ebidentzian oinarrituta, adierazi zein den aukera ZUZENA:

a) Kartzinoma anaplasiko bat diagnostikatzean, tiroidektomia oso bat programatu behar da, sistematikoki bi aldeetako zerbikalak premiaz eta errorik hustuko dituena, karotida-infiltrazioa alde batera utzita, kirurgia zitorreduktore oldarkorra baita biziraupena luzatzen duen terapia bakarra.

b) Azterketa molekularrak BRAF V600E mutazioaren presentzia agerian uzten badu, hasierako jokabide lehenetsia da hasierako kirurgia atzeratzea eta terapia neoadjubantea ezartzea, xede-inhibitzaileen konbinazio batekin (Dabrafenib eta Trametinib), ondoren erauzketa kirurgiko osoa ahalbidetuko duen tumore-zitoerredukzioa lortzeko (R0/R1).

c) Espektro zabaleko askotariko kinasako inhibitzaileek (lenvatinib edo sorafenib, adibidez) RET genearen translokazioa edo NTRK fusioak dituzten kartzinoma anaplasikoetan bakarrik erakutsi dute eraginkortasun terapeutikoa, eta ez dira baliagarriak RAS mutazioak dituzten tumoreetan.

d) Kinasa-inhibitzaileekin gidatutako terapiak erabiltzea formalki kontraindikatuta dago pazienteak premiazko trakeostomia bat egitea behar badu, arnasbidea oztopatuta dagoelako, estoma eta trakeako nekrosiaren berehalako dehiszentzia-arriskua dela eta.

484.- 55 urteko emakume bati ebakuntza programatua egin diote, zehazki tiroidektomia osoa, toraxetik kanpoko golo multinodular erraldoi bat duelako, torax barnera hedatzen dena. Kirurgia egiten da ageriko gorabeherarik gabe, eta bertan laringeko nerbio atzerakoiak eta hiru paratiroide-guruin identifikatu eta gorde dira bi aldeetan. Kirurgia ondoko bizkortze unitatean sartu eta 2 ordura, erizain arduradunak guardiako kirurgialari abisatu dio pazienteak bat-batean arnasa hartzeko estridorea duela, baita disnea ere, moderatutik larrira doana saihets arteko tiradurarekin. 115 t/m-ko takikardia du, eta oxigeno-saturazioa % 88ra jaitsi zaio, erreserborioko maskararekin. Miaketa fisikoan, bendaje zerbikal garbia ikusten da, baina lepoan tumefakzio asimetrikoa du, induratua eta haztatzean oso tenkatua. Zein izan behar da kirurgialariak jarraitu behar duen lehen jokabide terapeutikoa?

a) Pazientea berehala erradiologia interbentzionistaren gelara eramatea, lepoko ordenagailuz lagundutako tomografia egiteko kontrastearekin, berriro ebakuntza egin aurretik hodi odoltsua zehaztasunez aurkitzeko.

b) 100 mg hidrokortisonako zain barneko bolo bat eta adrenalina nebulizazioak premiaz pautatzea, eta estridorea intubazio endotrakeal luze bategatiko edema glotiko baten ondorio den susmo izatea.

c) Bendajea berehala irekitzea eta larruazaleko grapak/josturak eta aponeurosi zerbikala kentzea pazientearen ohe berean, hematoma itogarria ateratzeko, eta ebakuntza-gelara eraman aurretik arnasbidea deskonprimatzea lehenesteko.

d) Anestesiologoaren premiazko presentzia eskatzea, laringoskopia zuzenaren bidez berrintubazio orotrakeala egiten saiatzeko, zerbikaletako josturak ukitu gabe mantendu eta tiroideko gelaxkaren bakterio-kutsadura saihesteko.

485.- 46 urteko gizonezko bat premiaz ospitaleratu dute krisi hiperkaltzemiko baten ondorioz. Analitikan, honako hauek nabarmentzen dira: 15,2 mg/dL-ko kaltzio serikoa, giltzurrun-funtzio narriatua (1,8 mg/dL kreatinina) eta PTH maila oso altuak (1150 pg/mL). Tecnecio-99m-Sestamibirekin egindako ekografian eta gammagrafian 35 mm-ko masa nodularra dago, beheko eskuineko paratiroide-guruinaren mendekoa dena. Kaltzemia hidratazio intentsiboarekin eta bisfosfonatoekin egonkortu ondoren, kirurgia programatzen da. Miaketa kirurgikoan zehar, kirurgialariak harria bezain gogora den paratiroide-masa bat aurkitzen du, kolore zuri-grisaxkakoa, tinko itsatsita dagoena eta eskuineko tiroide-lobuluko kapsula eta ondoko ehun bigunak infiltratzen dituena. Zein da jokabide kirurgikorik EGOKIENA?

a) Pparatiroide-masaren enukleazio arretatsua egitea eta tiroide-lobulutik askatzen saiatzea, ebakuntzaondoko hipotiroidismoa saihesteko, eta masa izozte bidezko biopsiara bidaltzea, gaiztotasuna baieztatzeko.

b) Tumore-masa berehala erauztea blokean, honako hauekin batera: alde bereko tiroide-lobulua (eskuinekoa), istmoa, kaltetutako ondoko ehun bigunak eta alde bereko erdiko konpartimentuaren gongoiletako hustuketa (VI. maila).

c) Ebakuntza kirurgikoa etetea eta lepoa ixtea masaren biopsia ebakitzaile bat hartu ondoren, behin betiko erauzketa egiten saiatu aurretik cinacalcet kaltzinmimetikoarekin tratamendu neoadjubantea hasteko.

d) Masaren paratiroidektomia sinple bat egitea eta horri aldebiko tiroidektomia profilaktiko oso bat gehitzea, eskuineko aldeko gongoiletako II eta V mailaren hustuketa osoarekin batera.

486.- 48 urteko emakume bat kirurgia orokorreko kontsultara bideratu dute, giltzurrun gaineko ezkerreko guruinean masa bat aurkitu ondoren abdomeneko ekografia batean ustekabean. Pazienteak anamnesian adierazi du 6 hilabete doala pisu zentrala irabazten, ildaska moraxkak agertu zaizkiola abdomenean eta kontrolatzeko zaila den hipertentsio arteriala duela. Abdomen eta pelbiseko OT multifasikoan 72 mm-ko giltzurrun gaineko masa heterogenoa deskribatzen da, nekrosi zentraleko eremuak, ertz irregularrak eta 15 minutura % 30eko garbiketa kontrastatua (washout) duena. Azterketa funtzionalak ACTH ezabatua duen hiperkortisolismoa eta dehidroepiandrosterona sulfatoaren (DHEA-S) mailen igoera larria erakusten ditu. Paziente horren diagnostikoari eta estrategia terapeutikoari dagokionez, egungo ebidentzian oinarrituta, adierazi zein den aukera ZUZENA:

a) 6 cm-tik gorako masa denez eta gaiztotasun irizpide erradiologikoa eta gineko kartzinomaren susmoa dagoenez, heltze lehenetsi eztabaidaezina da laparoskopia edo robotika bidezko ezkerreko adrenalektomia egitea, ebakuntzaondoko mina minimizatzeko.

b) Formalki aginduta dago larruazalean zehar orratz fin batekin egindako ziztada eta aspirazio bat egitea, giltzurrun gaineko masaren OTk gidatuta, kirurgia programatu aurretik tumorearen jatorri kortikala baieztatzeko.

c) Tratamendu lehenetsia blokean irekitako adrenalektomia da, eta ertzak libreak bermatzea (R0). Behin betiko fasean giltzurrunaren gaineko kartzinoma kortikal bat dagoela baieztatzen bada, tratamendu adjubantea hasi behar da Mitotanorekin (farmako adrenolitikoa), batez ere errezidiba-arrisku handiko faktoreak badaude (esaterako, Ki-67 indizea > % 10).

d) Kortisola sortzen duen tumore funtzionatzailea denez, ebakuntzaondoko berehalako maneiuak ez du kortikoide exogenoak ematea eskatzen, kontrako aldeko giltzurrunaren gaineko guruin hipertrofikoa baitago tumore-estimuluaren ondorioz.

487.- **32 urteko emakume bat kirurgia orokorreko kontsultara joan da giltzurrun-litiasi errepikakorra eta astenia dituelako. Analitikan, honako hauek nabarmentzen dira: 11,4 mg/dL-ko kaltzio serikoa, 2,1 mg/dL-ko fosforoa eta ukitu gabeko PTH oso handia. Azterketan zehar, pazienteak adierazi du epigastralgia handiko gertakariak izaten dituela maiz, beherako urtsuarekin, zeinak ez diren geratzen omeprazolaren ohiko dosiak hartuta. Gainera, endoskopia batean duodenoko ultzera ugari eta 1200 pg/mL-ko gastrina basalaren mailak ikusi dira. Azterketa genetikoak 1 MEN genean mutazio germinal bat dagoela baieztatzen du. Paziente horren hasierako kirurgia-planteamenduari dagokionez, adierazi zein den aukera ZUZENA:**

a) Lehentasun absolutua dudoenoko/pankreako gastrinoma berehala erauztea da, duodenopankreatektomia zefaliko baten bidez (Whipple-ren prozedura), eta horregatik kirurgia paratiroidea modu zehaztugabean atzeratuko da.

b) 1 MENeko hiperparatiroidismoak guruin askotako erasan asinkronikoa duenez, tratamendu kirurgiko lehenetsia paratiroidektomia subtotala (3.5 guruin) edo paratiroidektomia osoa da, besaurreko autotrasplante heterotopikoarekin eta tinektomia transzerbikal profilaktikoarekin osatuta.

c) 1 MEN genearen mutazioa baieztatzean, formalki gomendatzen da tiroidektomia profilaktiko osoa egitea 35 urte bete baino lehen, tiroide konkomitanteen muineko kartzinomaren arrisku handia baitago.

d) 1 MENeko hiperparatiroidismoa adenoma bakarti bakar batek eragiten du kasuen % 90ean, eta, beraz, Sestamibi bidezko gammagrafiak gidatutako paratiroidektomia selektiboa da teknika lehenetsia.

488.- **28 urteko gizonezko bati 25 mm-ko aldebiko tiroideko muineko kartzinoma (TMK) diagnostikatu diote, eta erdiko guruin-konpartimentuari eragin dio, PAAF bateragarria eta 560 pg/mL-ko kaltzitonina basala izan ondoren. Odol periferikoko azterketa genetikoak mutazio germinal bat identifikatu du RET protoonkogeneko 634 kodonean, eta 2A MEN sindromea duela baieztatzen du. OT bidezko hedadura-azterketa egin bitartean, ustekabean giltzurrun gainean 38 mm-ko masa bat ikusi zaio eskuinean, eta feokromozitomarekin bateragarriak diren ezaugarriak ditu. Pazientearen tentsio arteriala 155/95 mmHg-koa da kontsultetan. Adierazi aukera zuzena, paziente horren sekuentzia eta estrategia terapeutikoari dagokionez:**

a) Aldebiko eta erdiko hustuketari lotutako premiazko tiroidektomia oso bat programatu behar da berehala; izan ere, tiroideko muineko kartzinoma tumore gaiztoa da, eta horrek haren bizi-pronostikoa baldintzatzen du epe laburrean.

b) Blokeo alfa-adrenergiko egokia hasi ondoren (fenoxibenzamina edo doxazosina bidez) gutxienez 10-14 egunez, lehenengo eskuineko adrenalektomia egin behar da feokromozitoma eraузteko. Ondoren, bigarren denbora kirurgiko batean, tiroidektomia osoa egingo da, guruin-hustuketarekin.

c) TMK aldebikoa denez eta pazienteak 634 kodonean mutazio bat duenez, aldi berean adrenalektomia eta tiroidektomia egin daitezke modu seguruan, kirurgia-ekintza berean, aldez aurreko prestakuntza farmakologikoaren beharrik gabe.

d) 2A MEN sindromea duenez, pazienteak pankreako tumore neuroendokrinoak (intsulinomak edo VIPomak) garatzeko % 100eko arriskua du, eta, beraz, urtero eskatu behar da endoskopia bidezko kontrol-ekografia.

489.- 54 urteko emakume batek ez du aurrekari medikorik eta senide interesgarririk, eta 28 mm-ko tiroideko nodulu bat du ezkerreko lobuluan. PAAFaren bidez tiroideko muineko kartzinoma diagnostikatu da. Bereizmen handiko ekografia zerbikalak ez du adenopatia susmagarririk erakusten erdiko eta alboko konpartimentuetan (cN0). Ebakuntza aurreko kaltzitonina seriko basalaren zifrak 210 pg/mL-koak dira. Odol periferikoko feokromozitomaren baheketa eta RET genearen mutazio-analisia negatiboak dira. Zein da paziente horren tratamendu kirurgiko lehenetsia?

a) Noizbehinkako kasua (RET negatiboa) eta cN0 direla baieztatu denez, nahikoa da ezkerreko tiroide-lobektomia egitea istmektomiarekin, eta linfadenektomiak saihestea disfonia-tasa murrizteko.

b) Tiroidektomia oso bat egin behar da, nahitaez aldebiko eta erdiko guruin-konpartimentu batekin lotuta (VI. maila), ebakuntza aurreko ekografia adenopatietarako negatiboa izan arren (cN0).

c) Gomendagarria da erabateko tiroidektomia egitea sistematikoki, II. mailatik V. mailara bitarteko (alboko konpartimentuak) aldebiko guruin-hustuketa erradikalarekin konbinatuta, noizbehinkako aldaeren neurotropismo handia dela eta.

d) Hasierako tratamenduak noduluaren irrati-maiztasun bidezko ablazioa izan behar du, eta, ondoren, kimioterapia sistemikoa eman behar da tirosina kinasaren inhibitzaileekin (Vandetanib, adibidez). Kirurgia errezidiba lokaletarako bakarrik gorde behar da.

490.- 20 urteko emakume bat kirurgia endokrinoko kontsultara joan da, medikuaren aholkua jasotzeko. Txosten batek dioenez, tiroideko muineko kartzinoma diagnostikatu zioten amari eta bi osabari adinez heldu zirenean (45 eta 55 urte bitartean), eta bietako inork ez du izan giltzurrun gaineko patologiarik edo patologia paratiroideorik. Proba genetiko bat egiten zaio, eta positibo ematen du RET protoonkogeneko 609 kodonean mutazio germinal bat izatean. Pazienteak ez du sintomarik, eta lepoaren miaketa fisiko zorrotz normal bat du, nodulurik gabeko ekografia tiroideoarekin eta oinarrizko kaltzitonina serikoaren maila normalekin (< 5 pg/mL). Adierazi aukera ZUZENA paziente hau maneiatu eta katalogatzeari dagokionez:

a) Pazienteak MEN ez den tiroideko muineko kartzinoma familiarra du, gaur egun RET mutazioen arrisku ertaineko taldearen barruan sailkatuta dagoena. Ekografia eta kaltzitonina normalak izan arren, tiroidektomia profilaktiko osoa gomendatzen da, eta nerabezaroa edo helduaro gaztea amaitu arte modu seguruan zaindu eta atzeratu daiteke, kaltzitonina-mailak normal mantentzen badira.

b) Kaltzitonina normala denez eta ekografian nodulurik ez dagoenez, proba genetikoa positibo kliniko faltsutzat joko da, eta ez da inolako ebakuntzarik edo jarraipenik egin behar.

c) RET mutazio germinal bat denez, pazienteak ezinbestean 2B MEN sindromea garatuko du datozen urteetan, eta, beraz, tiroidektomia osoa behar du, erdiko konpartimentuaren aldebiko guruin-hustuketarekin.

d) Arrisku ertaineko mutazioen eramaile asintomatikoetan tratamendu lehenetsia lebotiroxina bidezko terapia ezabatzailearen dosi altuak ematen hastea da, TSH 0,1 mUI/L-tik behera ezabatuta mantentzeko eta TMK ez agertzeko.

Osakidetza



4. KASU PRAKTIKOA GALDERAK 491-493

491.- 67 urteko emakume batek ez du aurrekari pertsonal interesgarririk, eta gorozkietan odola dagoen aztertzeko proba positibo bat du, populazioaren baheketa-programa baten barruan. Kolonoskopia egiten zaio, eta 3 cm-ko diametroko tumorazioa identifikatzen da, uzki-ertzetik 7 cm-ra. Biopsiaren azterketa anatomopatologikoak hesteetako adenokartzinoma nahiko bereiziaren berri eman du. Hedapen azterketak toraxeko eta abdomeneko OTA eta pelbiseko erresonantzia magnetikoa hartzen ditu barne, eta lesioa cT3c-d N1-2 M0 gisa sailkatzen da. Mesondesteko faszia bat du lesiotik 1 mm baino gutxiagora, eta uzki-ertzetik 5 cm-ra eta puborondestetik 1 cm baino gutxiagora dago. Egoera kliniko horretan, zein da emaitzarik onenak lotzen dituen aukera terapeutikoa?

a) Ziklo laburreko erradioterapia neoadjubantea (25 Gy) eta kirurgia 6 astera.
b) Erradiokimioterapia neoadjubantea, ziklo luzeko erradioterapiaren bidez (50,4 Gy), eta horrekin batera kapezitabina konkomitantea ematea zein kirurgia egitea 12 astera.
c) Zuzeneko kirurgia (aurreko erauzketa ultrabaxua, mesondestearen eszisio osoarekin) eta kimiorradioterapia adjubantea behar duen baloratzea ebakuntzaondokoan.
d) Kimioterapia sistemikoa, FOLFOX eskemaren arabera, eta kirurgia 6 astera.

492.- Aurreko kasuan, pazienteari aukeren berri eman ondoren, tratamendu-estrategia bat adosten da, organoa babesteko asmoz. Ziklo luzeko erradiokimioterapiako protokolo bat hasi da, eta tratamendua amaitu eta 6 astera, erantzun-balorazio bat egin da, irudi-proben bidez. OTAk eta erresonantzia magnetikoak erantzun erradiologiko osoaren berri eman dute, eta ondestea ukitu da eta normal dago. Erantzun osoa berresteko, errektoskopia bat eskatu da. Aurkikuntza hauetako zeinek EZ du aditzera ematen erantzun kliniko osoa denik?

a) Orbain zuri eta lauak.
b) Telangiektasiek.
c) Mukosaren hondar-nodularitateak.
d) Ultzerarik ez edukitzeak.

493.- Aurreko bi galderen kasuan, baieztatzen da erantzun kliniko osoa lortu dela, eta "watch and wait" programa bat hasi da. Jarraipen-proposamen hauetako zein da EGOKIENA lehenengo bi urteetan?

a) Pelbiseko EMN, ondesteko ukipena eta errektoskopia 3-4 hilean behin, eta tap OTA 6 hilean behin.
b) Ondesteko ukipena eta errektoskopia 6 hilean behin, eta tap OTA zein pelbiskeo EMN urtean behin.
c) Tap OTA, pelbiseko EMN, errektoskopia eta ondesteko ukipena, 6 hilean behin.
d) Tap OTA, pelbiseko EMN, errektoskopia eta ondesteko ukipena urtean behin.

494.- **75 urteko gizonezko batek prostatako adenokartziomaren anatomia patologikoa (RT 2025) du, muineko, bihotzeko eta neuropatia periferikoko erasana duen amiloidosiarekin (Darutumumab hilekoa), eta larrialdietara joan da 24 ordu doalako abdomeneko mina izaten. Abdomenaren beheko erdian minarekin eta defentsa ditu, eta Blumberg-en positiboa da. Odol-analisian hauek ikusi dira: 190ko PCEa eta 15.000 leukozito mm3 bakoitzeko, 3 arkurekin. Premiazko OTA bat eskatu da, eta hau jakinarazi digute: "2B WSES dibertikulitis akutu konplikatua (3 cm-ko kolekzioa + urrutiko pneummoperitoneoa, pelbisean libre dagoen likido-kopuru txikiarekin)". Egoera horren aurrean, zein da kirurgia-estrategia EGOKIENA?**

a) Laparoskopia esploratzailea, garbiketak eta drainatzea.
b) Sigma erauztea kolostomia terminalarekin (Hartman-en prozedura).
c) Sigma erauztea anastomosi primarioarekin.
d) Kalteak kontrolatzeko kirurgia: Sigma erauztea, VAC sistema eta "second look" erauzketa.

495.- **55 urteko emakume batek ez du aurrekari pertsonal interesgarririk, eta larrialdietara joan da hamabi egun doalako eskuineko hobi iliakoan abdomeneko mina izaten. Gernu-infekzioa zuelakoan, duela 72 ordu familiako medikuak antibiotikoak eta analgesikoak eman zizkion ahotik. Iristean, 37.4ºC sukarra eta okupazio-sentsazioa ditu eskuineko hobi iliakoan. Odol-analisian 180 PCE ditu. Premiazko abdomeneko eta pelbiseko OTA bat eskatu da, zeinean plastroi apendikular bat ikusten den, 7 cm-ko abzesu batekin. Zein da tratamendurik EGOKIENA?**

a) Espektro zabaleko antibiotikoa, larruazalean zeharreko drainatzea eta apendizektomia atzeratua (> 8 aste).
b) Premiazko apendizitektomia.
c) Baraua, fluidoterapia, espektro zabaleko antibiotikoak eta behaketa.
d) Premiazko kirurgia: abzesuaren drainatzea eta eskuineko kolektomia.

496.- **35 urteko emakume bat ospitaleratuta dago, kolitis ultzeradun baten debuta duelako, erasan pankolonikoarekin, eta kortikoide-tratamenduan dago dosi osoekin. Azken orduetan 39ºCko sukarra, takikardia >100 t/m, hipotentsioa (90/55ko TA) eta abdomeneko mina izaten hasi da. Abdomeneko erradiografia sinplean heste lodiaren eta pneummoperitoneoaren dilatazio handia ikusten da. Zein tratamendu da EGOKIENA?**

a) Zunda nasogastrikoa, fluidoterapia, espektro zabaleko antibiotikoak eta behaketa.
b) Premiazko kirurgia: kolektomia osoa eta ileostomia terminala.
c) Premiazko kirurgia: proktokolektomia eta ileostomia terminala.
d) Premiazko kirurgia: kolonaren erauzketa segmentarioa eta kolostomia terminala.

497.- **75 urteko gizonezko batek HTAren, hiperkolesterolemiaren eta prostatako hipertrofiaren aurrekari pertsonalak ditu, eta larrialdietara joan da abdomeneko mina eta distentsioa dituelako. Azken egun hauetan ez du haizatu eta ez da libratu. Abdomeneko erradiografia sinple baten ondoren, zeinean heste meharreko lakioen dilatazio orokorra ikusi den, abdomen eta pelbiseko OT bat eskatu da, eta OT horretan buxadura baldintzatzen duen eskuineko kolonaren neoplasia estenosante bat ikusi da. Kasu honetan, zein da aukera terapeutiko EGOKIENA?**

a) Endoprotesiak (Wall-stent) eta kirurgia geroratua jartzea 8-15 egunetara.
b) Tratamendu medikoa (baraua, zunda nasogastrikoa, fluidoterapia, AIEE) ematea buxadura gutxitu/desagertu arte eta kirurgia atzeratua.
c) Premiazko kirurgia: eskuineko kolektomia anastomosi ileokolikoarekin.
d) Premiazko kirurgia: eskuineko kolektomia anastomosirik gabe eta ileostomia terminala eskuineko hobi iliakoan.

498.- **60 urteko emakume bat erretzailea, hipertentsioduna eta gizena (BMI: 36) da. Larrialdietara joan da, bi egun doalako mina izaten ezkerreko hobi iliakoan eta hipogastrioan. Larrialdietara iristean konstante hauek zituen: 38ºC-ko tenperatura, 145/85 mmHg-ko TA, 80 t/m-ko BM eta % 97ko oxigeno-saturazioa. Miaketa fisikoan mina eta defentsa dira nagusi ezkerreko hobi iliakoan, defentsa du eta Blumberg-en positiboa da. Premiazko abdomen eta pelbiseko OTA irudietan, dibertikulitis akutu bat ikusten da sigman, 5 cm-ko abzesu perisigmoideo batekin (1b WSES). Kasu horretan zein da tratamendurik EGOKIENA?**

a) Tratamendu medikoa: baraua, fluidoterapia, analgesia eta zain barneko espektro zabaleko antibotikoa.
b) Premiazko kirurgia: sigmoidektomia laparoskopikoa + babes-ileostomia.
c) Premiazko kirurgia: Hartman-en prozedura.
d) Abzesuaren larruazalean zeharreko drainatzea (OTA/ekografia bidez) + tratamendu medikoa.

499.- **Paziente bat ospitaleratuta dago kirurgiako ospitalizazioko solairuan, aurretik hainbat ebakuntza egin ondoren, atxikiduren ondoriozko heste meharraren buxadura diagnostikatu baitiote. Tratamendu mediko estandarra (dieta absolutua, zunda nasogastrikoa, analgesia eta fluidoterapia) eta kontrol ebolutiboa hasi dira. Testuinguru horretan, aurkikuntza hauetatik zein EZ da premiazko tratamendu kirurgiko baten behar dela pentsarazten digun alarma-datu bat?**

a) Urea eta kreatinina handitzea.
b) Leukozitosia eta PCE handitzea.
c) Azidosia eta hiperlaktazidemia.
d) Min errefraktarioa analgesia pautatuan.



500.- **Poliposi adenomatoso familiarraren anatomia patologikoa duen 18 urteko paziente bati kontrol endoskopikoetan polipo gaineko adenokartzioma bat ikusi zaio eskuineko kolonean. Aurkikuntza horien aurrean, kirurgia-proposamen hauetako zein EZ zaio eskaini behar pazienteari?**

a) Babes-ileostomiarik gabeko protokolektomia konpontzailea.
b) Babes-ileostomia duen protokolektomia konpontzailea.
c) Eskuineko kolektomia onkologikoa eta jarraipen endoskopikoa.
d) Kolektomia osoa ileoneko eta ondesteko anastomosiarekin.